



ESTADÍSTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Servicios

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

ETORKIN ATZERRITARREI BURUZKO INKESTA 2014

*Emaitza nagusiak
2015eko abendua*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo
Berezia*



Sarrera

Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren lau urteko eragiketa bat da eta 2010ean egin zen lehen aldiz.

Orokorrean, EABIren helburua Europar Batasuneko gainerako herrialdeetatik zein munduko beste herrialdeetatik iritsitako atzerriko etorkinen bizi baldintzak ezagutu, aztertu eta ebaluatzea da.

Zehazkiago, biztanle horiei buruzko berariazko helburu hauek jar daitezke:

1. Orokorrean, haien ezaugarri demografiko, sozial eta ekonomiko nagusiak ezagutzea.
2. Immigrazioaren zioak eta migrazio proiektua ezagutzea.
3. Dauden hezkuntza- eta lan-premiak ezagutzea.
4. Euskadin duten finkatze eta gizarteratze maila ezagutzea, batez ere aztertutako biztanleek autonomia-erkidegoan daramaten bizitzan dituzten gogobetetze maileri dagokienez.

Azterlan estatistikoa atzerriko jatorria duten biztanle atzerritar guztiei zabaldu zaie eta, beraz, espainiar nazionalitatea lortu dutenak ere bildu ditu.

Emandako datuak eragiketaren bigarren aplikazio aldiari dagozkio, zeina 2014ko azken hiruhilekoan gauzatu baitzen. Lehenago 2010ean EABIren aplikazio bat egin zenez, zenbait une historikotako informazioa dago lehen aldiz. Hori dela-eta, analisi diakronikoa sar daiteke kolektibo horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) dituen gizarte premietarako hurbilketan.

Azkenik, txostenaren eduki zehatzari dagokionez, komeni da zehaztea haren asmoa ez dela EABIk jorratu dituen alderdi guzti-guztien analisi oso eta xehea izatea. Horren emaitza nagusiak aurkeztea du helburu, soil-soilik. Txosten honen ezaugarri hori dela-eta, batez ere lurralde-jatorriaren araberrako aldean analisiari dagokionez, 2010ean ikusitako emaitzei dagokienez aldaketa kualitatiboak dakartzaten alderdiak direnean baino ez dira alderdi xeheak aztertu.



ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIARI BURUZKO DATU OROKORRAK



1. ALDERDI OROKORRAK

1.1. Atzerriko jatorriko pertsonak dituzten bizikidetzako unitateen kopurua eta ezaugarriak

1. Azken lau urteetan hazkunde deigarria izan du atzerriko jatorriko pertsonak dauden bizikidetzako unitateen kopuruak, familia-etxebizitzetan edo establezimenduetan. Unitate horiek 2010ean 78.392 izatetik, 109.137 izatera igaro dira 2014an.

2014an zegoen egoera erreferentzia hartuta, 19.843 kasutan bizikidetzako unitate horietan atzerriko jatorriko pertsonak espainiar nazionalitatea lortu dute (5.716 ziren 2010ean). Gainerako 89.294 unitateetan, gutxienez pertsona horietako batek dauka oraindik atzerriko nazionalitatea (72.675 ziren 2010ean).

2. Aztertu diren 109.137 bizikidetzako unitateen % 48,6 ezkontzan edo bikotean daude oinarrituta, % 33,9k seme-alabak dauzkate eta % 14,7k ez dute halako ondorengorik. Unitateen % 12,5 familia gurasobakarrak dira, eta % 1 beste familia talde batzuk dira. Familia egitura dutenak % 62,1 badira, aztertutako unitateen % 37,9k, aldiz, familiaz besteko oinarria duten bizikidetzako egiturak islatzen dituzte.

Oro har kasu bakoitzean aztertutako bizikidetzako unitateen kopurua handitu den testuinguruan bada ere, 2010 eta 2014 artean datu horiek aldaketa handiak erakutsi dituzte atzerriko jatorriko biztanleen bizikidetzako egituretan. Familia-nukleo batean (seme-alabak dituzten bikote ezkonduak, seme-alabak dituzten aita edo ama bakarrak eta beste familia talde batzuk) oinarritutako unitateen kopurua 48.860tik 51.682ra igo da erreferentzia-aldian, % 5,6ko igoera, baina haren pisu erlatiboa % 62,5etik % 47,4ra jaitsi da. Seme-alabarik gabeko bikote ezkondu nahiz ezkongabeen pisua ere % 15,3tik % 14,7ra jaitsi da, haren guztizko kopurua 12.017tik 16.084ra igo arren, hots, % 33,8ko igoera. Baina aldaketarik erabakigarriena familia-oinarririk gabeko unitateen kopuruaren igoera da, 17.414tik 41.371ra. 2010ean bizikidetzako unitate guztien % 22,2 izatetik 2014an % 37,9 izatera igaro dira.

1.2. Biztanleriaren alde orokorrak aztertutako bizikidetzako unitateetan

3. Atzerriko jatorriko pertsonak dauden bizikidetzako unitateetan 259.902 pertsona bizi dira, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanle guztien % 11,9. Proporzio horrek gora egin du 2010eko % 10,4tik, 2010ean 226.525 pertsona zirelarik egoera horretan.

4. Pertsona horien % 24,9 jatorrian lortu zuten Estatuko nazionalitatea. % 22,4k, bestalde, jatorriz atzerritarak izanik, geroago lortu dute espainiar nazionalitatea; guztira 58.318 pertsona dira, eta haietako gehienek beste nazionalitate bati ere eutsi diote (46.807 kasu). Egun espainolaz beste nazionalitate bat duten biztanleak 135.865 dira, eta beste 1.061 pertsona aberrigabeak dira (143.630 eta 59 kasu, hurrenez hurren, 2010ean).



5. Guztira, EAEn atzerriko jatorriko 195.245 biztanle bizi dira, erkidegoko biztanle guztien % 8,9. Proportzio hori handitu egin da 2010eko % 8,2tik, urte hartan Euskadin atzerriko jatorriko 179.582 pertsona zeudelarik.

Talde nagusia oraindik osatzen dute Latinoamerikatik etorritako biztanleak, guztien % 44,8 izanik, 2010eko % 46,9aren azpitik, ordea. Europar Batasuneko (EB) herrialderen bateko jatorria duten biztanleak % 20,8 dira, haiek ere beheranzko bidean, 2010ean % 22,3 baitziren. Izan ere, 2014an Afrikako jatorria duten biztanleak talde hori gairitu dute. Afrikarrak atzerriko jatorriko biztanleen % 23,7 dira Euskadin, kasu honetan goranzko bidean 2010eko % 21,7tik.

Orain arte aztertutako areetatik kanpo, % 2,8 Txinatik etorritako biztanleak dira (% 2,7 2010ean). EAEn bizi diren atzerriko jatorriko biztanleen gainerako % 7,9 munduko beste zona batzuetatik datoz (EBtik kanpoko Europako zonak, latinoak ez diren Amerikako herrialdeak, Asiako gainerako herrialdeak eta Ozeania). Haien ehunekoak gora egin du 2010eko % 6,4tik.

6. EAEn bizi diren atzerriko jatorriko biztanleen administrazio-egoerari dagokionez, oro har alde hauek azpimarratu behar dira:

a) % 29,9k espainiar nazionalitatea lortu dute, goranzko bide argian 2010eko % 20tik.

b) % 99,2 erkidegoan daude erroldatuta (% 99,6 2010ean).

c) % 89,6k bizileku- eta lan-baimena daukate. Bizileku-baimena izanda lan-baimenik ez dutenak % 3,5 dira, % 6,7 egoera irregularrean egonda; azken talde hori 13.047 pertsonak osatzen dute. 2010ean, 14.632 pertsona zeuden egoera horretan, atzerriko jatorriko biztanleen % 8,1.

Bizileku-baimena baino ez daukaten pertsonetako asko, ordea, 16 urtez azpikoak dira eta, beraz, haien egoera, okupazioari dagokionez, legezketasunaren araberrakotzat jo daiteke guztiz. Hala, bizileku-baimenik izanda lan-baimenik ez duten pertsonak % 1,9 dira. 16 urte edo gehiago izanda lan-baimenik ez dutenen, edo bizileku-baimenik ez dutenen pisu erlatiboa % 8,6koa da EAEn bizi diren atzerriko jatorriko biztanleen artean. Ehuneko horrek jaitziera garrantzitsua izan du 2010eko % 13,2tik.

7. Aztertutako egoeren inpaktua (lan-baimenik ez izatea, 16 urte edo gehiagoko pertsonen dagokienez, edo bizileku-baimenik ez izatea edozein adinetan) atzerriko jatorriko biztanle talde guztietan urritu da, salbuespen bakarra gainerako Latinoamerikatik etorritako biztanleak izanik. Kasu horretan, egoera horietan dauden pertsonen proportzioa % 20,8tik % 27,5era igo da.

2014an, aztertutako egoeretan zeuden pertsonen proportzioa beste talde batzuetako % 8,6ko batez beste orokorra baino nabarmen handiagoa da, zehazki Paragwaitik etorritakoen (% 24,8) eta Afrika kontinenteko -Magrebko herrialdeetako dagokienez izan ezik- eta munduko gainerako herrialdeetako jatorria dutenen artean, zeinen pisu erlatiboa % 18 eta % 19,2 artekoa baita.


GEN-1. Etxebizitzan edo establezimenduan atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetza-unitateak. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak)

	2010	2014
	Abs.	Abs.
Atzerritarren presentzia		
Atzerritarrekin	72.675	89.294
Jatorrizko atzerritarrekin	5.716	19.843
Guztira	78.392	109.137

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

GEN-2. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetza-unitateak, familia-talde motaren arabera. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Familia-talde mota	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Familia multzorik ez	17.414	22,2	41.371	37,9
Seme-alabarik gabeko senar-emazteak edo bikoteak	12.017	15,3	16.084	14,7
Seme-alabadun senar-emazteak edo bikoteak	35.038	44,7	36.996	33,9
Seme-alabadun aita edo ama	11.602	14,8	13.594	12,5
Bestelako familia multzoa	2.320	3,0	1.092	1,0
Guztira	78.392	100,0	109.137	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

GEN-3. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetza-unitateetako biztanleak. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Nazionalitatea	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Estatukoa, jatorriz	46.943	20,7	64.656	24,9
Estatukoa, nazionalizatua	5.097	2,2	11.512	4,4
Estatukoa eta beste bat(zuk)	30.797	13,6	46.807	18,0
Beste bat(zuk)	143.630	63,4	135.865	52,3
Bat ere ez, lehen atzerriko bat	0	,0	931	,4
Bat ere ez	59	,0	131	,1
Guztira	226.525	100,0	259.902	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



GEN-4. Atzerritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jatorrizko eremua	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
EBko mendebaldea	21.426	11,9	19.531	10,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	18.627	10,4	21.070	10,8
Magreb	27.287	15,2	30.986	15,9
Argentina, Txile, Uruguai	8.068	4,5	9.159	4,7
Kolombia, Ekuador, Peru	33.031	18,4	31.176	16,0
Bolivia	13.870	7,7	13.499	6,9
Paraguai	5.547	3,1	5.782	3,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	14.318	8,0	14.826	7,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9.323	5,2	13.072	6,7
Txina	4.834	2,7	5.386	2,8
Senegal	3.300	1,8	4.702	2,4
Afrikako gainerako herrialdeak	8.450	4,7	10.552	5,4
Munduko gainerako herrialdeak	11.502	6,4	15.505	7,9
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

GEN-5. Nazionalizatutako atzerritar jatorriko pertsonen %, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014

Jatorrizko eremua	2010		2014	
	Nazionalizatua	Atzerritarra	Nazionalizatua	Atzerritarra
	%	%	%	%
EBko mendebaldea	19,1	80,9	25,6	74,4
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	5,8	94,2	4,6	95,4
Magreb	19,8	80,2	20,2	79,8
Argentina, Txile, Uruguai	37,6	62,4	64,8	35,2
Kolombia, Ekuador, Peru	33,8	66,2	62,3	37,7
Bolivia	11,2	88,8	38,5	61,5
Paraguai	2,4	97,6	10,7	89,3
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	30,2	69,8	49,7	50,3
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	24,4	75,6	32,5	67,5
Txina	5,3	94,7	4,1	95,9
Senegal	4,7	95,3	7,7	92,3
Afrikako gainerako herrialdeak	17,8	82,2	8,9	91,1
Munduko gainerako herrialdeak	8,0	92,0	11,4	88,6
Guztira	20,0	80,0	29,9	70,1

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



GEN-6. Atzeritar jatorriko biztanleak EAEn, erroldatze-egoeraren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010					2014				
	EAEn erroldatze egoera					EAEn erroldatze egoera				
	Betidanik	> 5 urte	< 5 urte	Erroldatu gabe	Guztira	Betidanik	> 5 urte	< 5 urte	Erroldatu gabe	Guztira
% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	
EBko mendebaldea	17,7	65,0	17,1	,2	100,0	13,2	71,7	11,5	3,6	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	5,3	49,0	44,9	,8	100,0	14,7	65,1	19,0	1,2	100,0
Magreb	17,5	52,2	29,8	,5	100,0	18,1	55,4	26,3	,3	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	2,6	67,5	28,7	1,2	100,0	2,7	80,1	16,8	,3	100,0
Kolombia, Ekuador, Peru	3,4	67,2	29,3	,2	100,0	3,9	78,5	17,1	,4	100,0
Bolivia	1,5	66,4	31,8	,3	100,0	11,7	76,8	11,5	,0	100,0
Paraguai	,4	31,5	67,7	,4	100,0	2,8	63,0	34,2	,0	100,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	4,9	60,3	34,3	,5	100,0	8,4	72,3	19,0	,2	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	2,6	55,2	41,5	,6	100,0	6,1	50,0	42,4	1,6	100,0
Txina	12,4	56,9	30,7	,0	100,0	17,4	52,9	29,7	,0	100,0
Senegal	7,8	43,9	48,3	,0	100,0	7,8	61,9	29,9	,4	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	17,1	55,1	27,8	,0	100,0	9,5	51,2	39,1	,2	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	6,9	46,9	46,2	,0	100,0	11,0	47,4	40,7	,9	100,0
Guztira	8,4	57,9	33,3	,4	100,0	10,5	64,8	23,9	,8	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



GEN-7. Atzeritar jatorriko biztanleak, administrazio-egoeraren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Espainiako nazionalitatea	35.894	20,0	58.318	29,9
Etengabeko egoitza	89.217	49,7	88.878	45,5
Denboraldiko egoitza (ez lan-baimena)	17.345	9,7	6.798	3,5
Denboraldiko egoitza (lan-baimenarekin)	22.496	12,5	27.690	14,2
Beste egoera legal bat	0	,0	514	,3
Irregularra	13.703	7,6	11.827	6,1
Irregularra, gerora gertatua	929	,5	1.220	,6
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

GEN-8. Atzeritar jatorriko biztanleak, administrazio-egoeraren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(% horizontalak)

	Urtea					
	2010			2014		
	Egoera legala			Egoera legala		
	Bizileku- eta lan- eskubidea	Denboraldiko egoitza (ez lan-baimena)	Irregularra	Bizileku- eta lan- eskubidea	Denboraldiko egoitza (ez lan-baimena)	Irregularra
Jatorrizko eremua	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	97,2	2,1	,6	100,0	,0	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	98,7	1,1	,3	100,0	,0	,0
Magreb	91,3	5,2	3,5	91,4	2,6	5,9
Argentina, Txile, Uruguai	82,9	7,8	9,3	97,3	,2	2,5
Kolombia, Ekuador, Peru	92,2	6,3	1,6	97,7	1,8	,5
Bolivia	75,1	8,3	16,5	92,2	2,1	5,7
Paraguai	52,0	6,0	42,0	75,2	4,0	20,8
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	82,2	5,5	12,4	91,7	,9	7,3
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	79,2	2,8	18,0	72,5	4,7	22,9
Txina	94,5	5,1	,4	98,1	1,9	,0
Senegal	69,7	4,8	25,6	80,8	1,1	18,1
Afrikako gainerako herrialdeak	79,6	6,2	14,2	82,0	3,2	14,8
Munduko gainerako herrialdeak	73,9	7,8	18,3	81,4	3,2	15,3
Guztira	86,8	5,1	8,1	91,4	1,9	6,7

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



2. IDENTIFIKAZIO DATU NAGUSIAK

2.1. Sexua eta adina

8. EAEn atzerriko jatorria duten biztanleen sexuaren arabera banaketa nahiko orekatua da oraindik, baina ñabardura batzuk sartu behar dira. Alde batetik, 2010 eta 2014 artean emakumeen pisu erlatiboa handitu da (% 51,6tik % 53,1era). Bestetik, proportzio orokorrak sexuaren arabera desoreka handiak ezkututzen ditu talde askotan, jatorriaren arabera.

Hala, gizonen pisua % 55etik gorakoa da Magreb, Senegal eta gainerako Afrikatik etorritako biztanleen artean, eta proportziorik handiena, % 76,2koa, Senegalgo biztanleei dagokie. Emakumeei dagokienez, ordea, haien proportzioa % 55etik gertukoa edo handiagoa da Latinoamerikako jatorria duten taldeen artean –Paraguaiko eta gainerako Latinoamerikako jatorria dutenen arteko zifrak % 70etik gorakoak dira–, zein Errumaniatik eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik iritsitakoaren artean.

9. EAEn atzerriko jatorriko biztanleen nukleo nagusia 25-44 urtekoa da, % 48,3 izanik, eta haien ondoren 25 urtez azpiko pertsonak % 28,4 dira (% 17,9 16 urtez azpikoak dira eta % 10,5 16-24 urtekoak). Taldearen % 23,3 45 urtez gorakoak dira.

Adin-taldeetako pertsonen kopuruak ere handitu egin dira 2010 eta 2014 artean, salbuespen bakarra 16-24 urteko biztanleak direlarik. Kasu horretan, biztanleen kopurua 31.002tik 20.426ra jaitsi da, eta biztanleriaren banaketan haien pisua 2010eko % 17,3tik egungo % 10,5era erori da. Zenbaki erlatiboetan, gehien handitu den taldea 45 urtez gorakoa da, zehazki, % 19,0tik % 23,3ra 2010 eta 2014 artean.

2.2. Ikasketa-maila

10.16 urtetik gorako atzerriko jatorriko biztanleei dagokienez, % 77,4 ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonak dira (% 77 2010ean). Ikasketarik gabeko pertsonak % 12,9 dira, % 25,4k lehen mailako ikasketak lortu dituzte eta % 39,2k lehen mailako ondorengo ikasketa ez-kualifikatuak (% 33,3k bigarren mailakoak eta % 5,9k gradu ertaineko LHkoak). Ikasketa kualifikatuak dituztenen artean (% 22,6), % 5,2k goi-mailako LHko ikasketak dituzte eta % 17,3k hirugarren mailakoak, bidean edo amaituta.

Zifra horiek, neurri handi batean, 2010ean zegoen egitura errepikatzen dute, baina handitu egin da ikasketa esanguratsurik gabeko biztanleria. Igoera hori deigarria da zenbaki erlatiboetan (aztertutako biztanleen % 8,2tik % 12,9ra) baina, batez ere, zenbaki absolutuetan (egoera horretan dauden 16 urtetik gorako pertsonak 12.193 izatetik 20.610 izatera).

Eskuratutako ikasketek argi bereizten dituzte atzerriko biztanleak, haien jatorriaren arabera. Ikasketarik urrienak dituztenen aldean, gehienez ere lehen mailako ikasketak lortu dituzten 16 urtetik gorako pertsonak % 45 inguru edo gehiago diren herrialdeen taldeak nabarmentzen dira; haietan, ikasketa kualifikatuak (goi-mailako LH edo hirugarren mailako ikasketak) dauzkaten pertsonen pisu erlatiboa % 10etik gertukoa edo txikiagoa da. 2014an, egoera horrek bereizten ditu Afrikatik etorritako taldeak eta Txinatik iritsitakoa.

Tarteko posizioan, biztanleen % 40 inguru edo gehiago dira bigarren mailako ikasketak lortu dituztenak,



baina % 20 baino gutxiago ikasketa kualifikatuak lortu dituztenak, Latinoamerikako herrialde talde batzuetan (Kolonbia/Ekuador/Peru, Bolivia eta Paraguai). Posizio horretan egoten dira Errumaniatik eta EBko ekialdeko herrialdeetatik etorritako pertsonak ere.

Ikasketa mailarik handieneko aldean, ikasketa kualifikatuak dituzten biztanleen pisu erlatiboa % 30etik gertukoa edo handiagoa da Latinoamerikako jatorriko gainerako taldeetan (Argentina/Txile/Uruguai, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikak eta gainerako Latinoamerika) eta munduko gainerako herrialdeetan. Gauza bera gertatzen da EBko mendebaldeko herrialdeetan iritsitako pertsonen artean baina, kasu horretan ere, bigarren edo hirugarren mailako ikasketarik egin ez duten pertsonen proportzioa batez bestekoa baino handiagoa da.

2.3. Kultura aldeak

11. Atzerriko jatorriko biztanleen % 39k atxikipen nazional, etniko, kultural edo erlijioso mota jakinen bat adierazten dute. Atxikipen nagusia erlijiosoa da, arlo horretan % 30,3 pertsona ageri dira (% 17,3 erlijio kristauei, % 12,6 musulmanari eta % 0,5 beste jarrera erlijioso batzuei lotuta). Lurralde-oinarriko identifikazio nazionalerako moduei dagokienez, % 5,3 dira, eta % 3,3 identifikazio etno-kulturalerako dagokienez.

12. Bizi diren tokiko komunikazio-hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaren erabilera oso zabaldua nabarmentzen da, atzerriko jatorriko biztanleen % 62,7k erabiltzen dute hizkuntza hori, goranzko bidean, 2010ean % 58,9 baitziren. Erregistro horren aurrean, euskarari % 0,6 dagokio, 2010ean baino are gutxiago, orduan % 1,3 baitziren.

Atzerriko jatorriko biztanleen artean erabilera maila esanguratsua duten beste hizkuntza batzuk arabiera (% 10,8, gorako bidean 2010eko % 9,2tik) eta errumaniera (% 6,3) dira. % 3,5ek ingelesa erabiltzen dute, % 2,7k txinera, % 2,3k portugesa eta % 3k urdua.



ID-1. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sexua	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Gizona	86.984	48,4	91.571	46,9
Emakumea	92.598	51,6	103.675	53,1
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

ID-2. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010		2014	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	57,2	42,8	52,8	47,2
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	48,6	51,4	45,8	54,2
Magreb	59,2	40,8	59,9	40,1
Argentina, Txile, Uruguai	48,6	51,4	45,7	54,3
Kolombia, Ekuador, Peru	43,5	56,5	40,5	59,5
Bolivia	41,7	58,3	39,0	61,0
Paraguai	39,1	60,9	29,0	71,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	36,3	63,7	36,1	63,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	27,1	72,9	28,5	71,5
Txina	52,7	47,3	48,8	51,2
Senegal	78,2	21,8	76,2	23,8
Afrikako gainerako herrialdeak	53,2	46,8	61,5	38,5
Munduko gainerako herrialdeak	51,6	48,4	48,5	51,5
Guztira	48,4	51,6	46,9	53,1

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

ID-3. Atzerritar jatorriko biztanleak, adinaren arabera. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Adina	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
0-5 urte	10.506	5,9	14.723	7,5
6-15 urte	19.592	10,9	20.229	10,4
16-24 urte	31.002	17,3	20.426	10,5
25-44 urte	84.347	47,0	94.313	48,3
45-64 urte	31.971	17,8	39.420	20,2
65 urte edo gehiago	2.165	1,2	6.134	3,1
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ID-4. Atzerritar jatorriko biztanleak, adinaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010				2014			
	Betetako adina				Betetako adina			
	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte edo gehiago	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte edo gehiago
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	11,6	10,8	48,3	29,3	13,6	6,9	30,0	49,6
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	15,8	19,3	45,1	19,9	23,7	8,4	50,7	17,1
Magreb	24,3	14,5	43,7	17,5	26,0	9,8	49,0	15,2
Argentina, Txile, Uruguai	13,2	19,5	37,5	29,7	8,6	7,9	45,8	37,8
Kolombia, Ekuador, Peru	15,4	22,1	43,9	18,6	10,6	17,0	47,7	24,8
Bolivia	19,6	17,2	49,4	13,8	23,1	9,1	51,4	16,3
Paraguai	11,7	20,1	54,4	13,8	11,2	12,4	56,8	19,6
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak	11,3	24,2	43,8	20,6	16,6	14,2	46,3	22,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9,4	14,4	58,0	18,2	12,7	9,5	54,1	23,6
Txina	19,8	17,6	47,8	14,8	23,7	9,9	45,3	21,1
Senegal	16,4	10,8	62,7	10,0	16,9	8,7	54,9	19,5
Afrikako gainerako herrialdeak	24,0	17,3	51,0	7,7	22,2	8,1	56,1	13,6
Munduko gainerako herrialdeak	21,7	11,2	51,4	15,7	18,6	7,5	54,2	19,8
Guztira	16,8	17,3	47,0	19,0	17,9	10,5	48,3	23,3

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

ID-5. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren arabera. 2010 eta 2014 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Ikasketa-maila	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Ikasketa esanguratsurik gabe	12.193	8,2	20.610	12,9
Derrigorrezkoak	42.960	28,7	40.679	25,4
Bigarren mailakoak	52.872	35,4	53.366	33,3
LH EM	7.008	4,7	9.436	5,9
LH GM	7.347	4,9	8.405	5,2
Hirugarren mailakoak	27.104	18,1	27.798	17,3
Guztira	149.484	100,0	160.294	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ID-6. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (% horizontalak)

	2010			2014		
	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo LH EM	LH GM edo Hirugarren mailakoak	Lehen mailakoak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo LH EM	LH GM edo Hirugarren mailakoak
Jatorrizko eremua	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.
EBko mendebaldea	44,6	25,2	30,2	41,6	19,4	39,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	34,5	40,6	24,8	40,7	39,4	19,8
Magreb	52,3	34,6	13,2	52,6	35,9	11,5
Argentina, Txile, Uruguai	23,3	43,1	33,6	12,1	47,0	40,9
Kolombia, Ekuador, Peru	33,3	51,2	15,5	31,1	50,8	18,1
Bolivia	34,5	48,3	17,2	31,9	59,3	8,7
Paraguai	26,4	53,4	20,2	41,4	42,1	16,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	30,8	46,0	23,2	30,9	39,9	29,1
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	21,3	43,1	35,6	32,2	32,6	35,2
Txina	46,1	42,1	11,8	52,5	37,2	10,3
Senegal	66,4	22,5	11,1	66,4	26,1	7,5
Afrikako gainerako herrialdeak	44,1	36,4	19,4	51,7	37,4	10,9
Munduko gainerako herrialdeak	24,9	24,5	50,6	31,9	33,8	34,3
Guztira	36,9	40,1	23,0	38,2	39,2	22,6

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

ID-7. Beren burua talde nazional etniko, kultural edo erlijioso jakin bateko kideztat jotzen duten atzerritar jatorriko biztanleak, atxikimendu motaren arabera. 2010 eta 2014 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Atxikimendu mota	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lurralde jakin batekiko identifikazioa: nazioz gaindikoa	962	,5	348	,2
Lurralde jakin batekiko identifikazioa: nazionala: Espainia	774	,4	1.346	,7
Lurralde jakin batekiko identifikazioa: nazionala: Euskadi	396	,2	960	,5
Lurralde jakin batekiko identifikazioa: nazionala: beste batzuk	7.224	4,0	7.631	3,9
Lurralde jakin batekiko identifikazioa: tokikoa	824	,5	72	,0
Identifikazio etnokulturala	4.679	2,6	6.471	3,3
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: kristauak oro har	1.815	1,0	6.592	3,4
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: katolikoa	6.350	3,5	14.380	7,4
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: ortodoxoa	3.464	1,9	7.245	3,7
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: beste kristau batzuk	4.138	2,3	5.486	2,8
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: musulmana	16.904	9,4	24.618	12,6
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: beste batzuk	375	,2	909	,5
Erljio-jarrerarekiko identifikazioa: ateismoa	197	,1	0	,0
Identifikazio soziologikoa	293	,2	137	,1
Talde-identifikaziorik gabe	131.188	73,1	119.051	61,0
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ID-8. Beren burua talde nazional etniko, kultural edo erlijioso jakin bateko kideztat jotzen duten atzerritar jatorriko biztanleak, atxikimendu motaren arabera (taldeka). 2010- 2014 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Atxikimendu mota	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lurraldea	10.179	5,7	10.356	5,3
Identifikazio etnokulturala	4.679	2,6	6.471	3,3
Erlijio-jarrera	33.243	18,5	59.230	30,3
Identifikazio soziologikoa	293	,2	137	,1
Talde-identifikaziorik gabe	131.188	73,1	119.051	61,0
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

ID-9. Beren burua talde nazional etniko, kultural edo erlijioso jakin bateko kideztat jotzen duten atzerritar jatorriko biztanleak, atxikimendu motaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010						2014					
	Lurraldea	Identifikazio etnokulturala	Erlijio-jarrera	Identifikazio soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira	Lurraldea	Identifikazio etnokulturala	Erlijio-jarrera	Identifikazio soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira
EBko mendebalde	5,5	1,4	6,6	,3	86,2	100,0	3,8	,0	10,1	,0	86,1	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	5,3	1,3	17,3	,0	76,1	100,0	11,3	2,2	31,3	,0	55,2	100,0
Magreb	1,9	11,2	48,0	,0	38,9	100,0	2,1	9,0	55,5	,0	33,4	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	,1	,0	8,4	,4	91,0	100,0	7,3	,8	10,4	,0	81,5	100,0
Kolombia, Ekuador, Peru	5,1	,0	10,4	,3	84,2	100,0	2,9	,2	19,7	,2	77,0	100,0
Bolivia	8,2	,5	13,1	,0	78,2	100,0	5,2	1,5	30,1	,6	62,6	100,0
Paraguai	8,8	,6	15,2	,2	75,2	100,0	16,7	1,2	23,3	,0	58,9	100,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	4,3	,1	12,6	,1	82,8	100,0	,3	10,9	12,1	,0	76,8	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	,0	,0	14,2	,7	85,1	100,0	5,2	,6	24,5	,0	69,7	100,0
Txina	27,3	,3	5,0	,0	67,4	100,0	15,9	,6	10,6	,0	72,9	100,0
Senegal	1,1	9,8	55,2	,0	33,9	100,0	10,0	3,5	60,3	,0	26,2	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	23,0	7,6	14,9	,0	54,5	100,0	3,7	4,8	59,2	,0	32,3	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	2,1	,0	19,7	,0	78,2	100,0	6,0	2,4	41,0	,0	50,6	100,0
Guztira	5,7	2,6	18,5	,2	73,1	100,0	5,3	3,3	30,3	,1	61,0	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ID-10. Atzerritar jatorriko biztanleak, bizilekuan komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzaren arabera. 2010 eta 2014

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Komunikazio-hizkuntza	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Euskara	2.255	1,3	1.101	,6
Gaztelania/espainiera	105.818	58,9	122.428	62,7
Ingelesa	2.320	1,3	6.828	3,5
Frantsesa	1.531	,9	1.993	1,0
Arabiera	16.560	9,2	21.183	10,8
Errumaniera	13.500	7,5	12.251	6,3
Portugeses	8.207	4,6	4.574	2,3
Txinera	4.729	2,6	5.222	2,7
Berberea	4.771	2,7	604	,3
Urdu hizkuntza	2.546	1,4	3.948	2,0
Wolof hizkuntza	2.061	1,1	2.209	1,1
Europako beste hizkuntza batzuk	7.364	4,1	7.208	3,7
Afrikako beste hizkuntza batzuk	5.300	3,0	3.702	1,9
Amerikako beste hizkuntza batzuk	1.403	,8	57	,0
Asiako beste hizkuntza batzuk	1.216	,7	1.939	1,0
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ID-11.a. Atzerritar jatorriko biztanleak, bizilekuan komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010
(% horizontalak)

	Euskara	Gaztelania/e spainiera	Ingelesa	Frantsesa	Arabiera	Errumanier a	Portuges a	Txinera	Berberea	Urdu hizkuntza	Wolof hizkuntza	Europako beste hizkuntza batzuk	Afrikako beste hizkuntza batzuk	Amerikak o beste hizkuntza batzuk	Asiako beste hizkuntza batzuk	Guztir a
Jatorrizko eremua	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
2010 EBko mendebalde	3,6	59,6	5,1	2,7	,0	,0	25,5	,0	,0	,0	,0	3,4	,0	,0	,0	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	,0	13,8	,0	,0	,0	71,9	,0	,0	,0	,0	,0	14,3	,0	,0	,0	100,0
Magreb	1,0	17,5	,0	,5	59,9	,0	,0	,0	17,5	,0	,0	,0	3,7	,0	,0	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	,9	98,6	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,3	,0	,1	,0	100,0
Kolombia, Ekuador, Peru	,3	99,7	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Bolivia	,0	97,6	,0	,0	,2	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	2,3	,0	100,0
Paraguai	,0	81,9	,3	,0	,0	,0	1,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	16,7	,0	100,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	2,9	78,4	,0	,0	,0	,0	18,7	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	4,0	96,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Txina	,0	2,2	,0	,0	,0	,0	,0	97,8	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Senegal	,0	3,0	,0	2,5	2,1	,0	,0	,0	,0	,0	53,3	,0	39,1	,0	,0	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	1,6	44,6	4,6	8,6	,0	,0	,0	,0	,0	,0	3,6	,0	35,4	1,7	,0	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	1,1	22,7	7,2	,0	1,1	,9	,0	,0	,0	22,1	,0	34,4	,0	,0	10,6	100,0
Guztira	1,3	58,9	1,3	,9	9,2	7,5	4,6	2,6	2,7	1,4	1,1	4,1	3,0	,8	,7	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ID-11.b. Atzeritar jatorriko biztanleak, bizilekuan komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2014

(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	Euskara	Gaztelania/es painiera	Ingelesa	Frantsesa	Arabiera	Errumaniera	Portugesas	Txinera	Berberea	Urdu hizkuntza	Wolof hizkuntza	Europako beste hizkuntza batzuk	Afrikako beste hizkuntza batzuk	Amerikako beste hizkuntza batzuk	Asiako beste hizkuntza batzuk	Guztir a
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
2014 EBko mendebaldea	3,9	63,9	6,0	5,0	,0	,0	16,3	,0	,0	,0	,0	4,9	,0	,0	,0	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	,0	32,8	,2	,0	,0	57,4	,4	,0	,0	,0	,0	9,2	,0	,0	,0	100,0
Magreb	,0	28,4	,0	,0	68,0	,0	,0	,0	1,9	,0	,4	,0	1,2	,0	,0	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	,8	97,6	1,5	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Kolombia, Ekuador, Peru	,0	99,8	,1	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,1	,0	,0	,0	100,0
Bolivia	,0	100,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Paraguai	,0	99,6	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,4	,0	100,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	1,0	89,9	,3	,2	,0	,0	8,7	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	,2	98,9	,7	,0	,0	,0	,2	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Txina	,0	2,7	,4	,0	,0	,0	,0	96,9	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100,0
Senegal	,4	25,0	,0	7,9	,0	,0	,0	,0	,0	,0	43,6	,0	23,0	,0	,0	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	,0	32,2	40,3	5,5	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,3	,0	21,3	,3	,0	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	,4	25,4	6,7	,2	,6	1,0	,0	,0	,0	25,5	,0	27,6	,0	,0	12,5	100,0
Guztira	,6	62,7	3,5	1,0	10,8	6,3	2,3	2,7	,3	2,0	1,1	3,7	1,9	,0	1,0	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



3. EGUNGO OKUPAZIO EGOERA

3.1. Hezkuntza-jardueretan parte hartzea

13. Atzerriko jatorriko 16 urte eta gehiagoko biztanleen % 20,5ek ikasketa motaren bat egiten dute, 2010eko % 19,5en gainetik. % 13,6k ikasketa arautuak egiten dituzte (% 11,7 2010ean) eta % 6,8k ikasketa ez-arautuak (% 9 2010ean).

Ikasketa arautuen mailarik altuena Senegalgo eta munduko gainerako herrialdeetako biztanleen eta Latinoamerikatik (Argentina/Txile/Uruguai, Kolonbia/Ekuador/Peru eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika) etorritako biztanle talde batzuen artean ageri da, % 16,5-18,3. Proportzioa batez bestekotik gertuagoko mailetan dago -% 13,2-14,6- Magreb eta gainerako Afrikako biztanleen artean.

Aztertutako taldeetan, ikastaro ez-arautuetako parte-hartzea ere esanguratsua da; proportzioak % 9-15,5ekoak dira Afrikatik, Argentina/Txile/Uruguaitik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen artean.

EBko eremuetatik, Bolivia, Paraguai, gainerako Latinoamerika eta Txinatik iritsitako biztanleei dagokienez, aldiz, ikasketetan dituzten parte-hartze mailak batez bestekoaren azpitik daude, argi eta garbi, eremu arautuan naiz ez-arautuan.

14. Atzerriko jatorriko biztanleek hezkuntza prozesuan duten integrazioaren adierazle batzuk jaso ditu EABIk.

Atzerriko jatorriko 16 urtez azpiko biztanleei dagokienez, % 8,4ren arabera, eskolan integratzeko arazo motaren bat dago; proportzioa % 11,7raino iristen da adin horretatik gorako biztanleen artean. Zifra biak 2010ean jasotakoak (% 15,1 eta % 21,7, hurrenez hurren) baino nabarmen txikiagoak dira.

Oraindik ere eskola-atzerapena da funtsezko arazoa bi kasuetan, baina inpaktua 2010ekoa baino nabarmen txikiagoa da (% 7,3 eta % 20,9 16 urte eta gehiagoko biztanleen artean; % 4,5 eta % 8,7 adin horretatik beherakoen artean). 2014an, eskola-atzerapen mailak % 7,5etik behera daude beti 16 urtez azpiko biztanleen artean. Txinatik, Kolonbia/Ekuador/Perutik eta Paraguaitik etorritako 16 urtetik gorako biztanleen artean, ordea, % 10etik gorakoak dira oraindik.

Gainerako arazoen inpaktua askoz txikiagoa da baina kasu batzuetan esanguratsuak izan daitezke, hala nola hizkuntzari lotutako arazoei dagokienez. Ikasketa arautuak egiten dituzten 16 urtetik gorako pertsonen artean, % 4,3k aipatu dituzte, goranzko bide argian, 2010ean % 1,9 baitziren. Arazo hori gehien jasaten duen taldea munduko gainerako herrialdeetakoa da, % 16,4 baitira. 16 urtez azpiko biztanleei dagokienez, arazoaren inpaktua % 3,4tik % 3ra jaitsi da 2010 eta 2014 artean, baina inpaktu deigarria dauka Txinatik etorritako biztanleen artean (% 14,1).



Oso positiboa da 2010 eta 2014 artean arbuio-arazoak urritu izana; % 4tik % 0,9ra jaitsi dira 16 urtez azpiko biztanleen artean eta % 2,7tik % 0,5era adin horretatik gorakoen artean. Ez da inongo talde geografikotan ikusi % 5etik gorako arbuio mailarik, 2010ean antzemandakoaren aldean.

EABIk hezkuntza sistemako integrazio prozesuei buruz jorratu dituen beste kontu batzuek joera on horiek berretsi dituzte. 2010 eta 2014 artean, %6,4tik %5,3ra jaitsi da 6 urtez azpiko adingaberen batentzako plazarik ezak kaltetutako adin horietako seme-alabak dituzten bizikidetzako unitateetako biztanleriaren pisu erlatiboa. Arazo hori, ordea, garrantzitsua da oraindik Errumania edo EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan (% 8,4) eta gainerako Latinoamerikan (% 11,5) jatorria duten biztanleen artean. Munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleriaren barneko osagaia aldatu egin da, Asiako biztanleen pisua handitu baita, eta horren ondorioz, talde horrek jasan du gehien arazo hori 2014an (% 12,8).

Beste arazo batzuen inpaktua askoz txikiagoa da, eta 16 urtez azpiko familia-unitateetako biztanleen artean ia ez dago eskola-absentismoko arazorik (2014n arazo horrek ez zeukan pisurik ia eta 2010ean % 0,7koa zen). Proporzioa % 0,8koa da ikasketak goizegi utzi dituzten 25 urtetik beherako pertsonak dauzkaten familia-unitateei dagokienez, beheranzko bide argian, 2010ean % 2,4 baitziren. 2014an, adierazle horretako zifrarik handienak ez dira % 2,6-2,7tik gorakoak Txinako eta munduko gainerako herrialdeetako biztanleen artean.

3.2. Jarduerarekiko, okupazioarekiko eta langabeziarekiko erlazioa

3.2.1. Adierazle nagusiak

15. Atzerriko jatorriko 155.685 pertsona daude aktiboa izan daitekeen adin-tartean, 16 eta 66 urte artean kokatuta; % 5,3ko igoera da hori 2010eko 147.790 pertsonen aldean. Talde horrek EAeko 16-66 urteko biztanleria osoan duen pisua 2010eko % 9,9tik 2014ko % 10,7ra handitu da.

Aztertu den atzerriko jatorriko taldean lana dute gehienek, guztien % 48,4k; egoera horretan 75.280 pertsona daude guztira. Zifra horiek 2010etik jaitsiera egon dela erakusten badute ere, aldeak ez dira oso deigarriak (pertsona landunak guztien % 52,1 ziren, 77.000 zenbaki absolutuetan, urte hartan). Aztertutako taldeak EAeko biztanle landun guztien artean duen proporzioa handitu egin da apur bat eta 2010eko % 8,2tik 2014ko % 8,4ra igo da.

Haien jardueraren aitorten orokorrean oinarrituta, langabetuak izan daitezkeen biztanleak 48.880 pertsona dira¹, aktiboa izan daitekeen adineko atzerriko biztanleen % 31,4. Kasu horretan, igoera oso nabarmena da, 2010ean 34.539 pertsona baitzeuden egoera horretan, 16-66 urteko pertsona guztien % 23,4.

¹ Biztanle horiek langabetuak izan daitezkeela esaten da ABEIn ez direlako kontuan hartzen LANE talde langabetua definitzeko aintzat hartzen diren aldagai guztiak, bereziki enplegua bilatzeko mekanismo eraginkorren erabilera. Atera den tasa, beraz, LANE tasa baino handiagoa da.



Biztanle ez-aktiboak gainerako % 20,2 dira, beheranzko bidean 2010eko % 24,5etik. Dinamika hori 16-66 urteko atzerriko jatorriko biztanleen jarduera-tasan dagoen goranzko joeraren emaitza da, zeina 2010eko % 75,5etik 2014ko % 79,8ra igaro baita.

Okupazio-bolumena urritzen ari den testuinguruan (77.000tik 75.280ra), biztanle aktiboaren kopuruaren igoerak langabeziaren goranzko joera argia dakar talde horretan. Langabezia potentzialaren tasa % 31tik % 39,4a igo da, zifra ikaragarri handia.

Jarduerarekiko, okupazioarekiko eta langabeziarekiko erlazioan alde oso handiak ikusten dira atzerriko biztanleen jatorriko herrialdearen arabera; izan ere, okupazio-koefizienterik handiena eta txikiena duten taldeen arteko aldea 66,9 puntukoa da 2014an². Okupazio mailarik handiena Txinako jatorria duten biztanleei dagokie, 82,9 16-66 urteko 100 pertsonako eta % 2,7ko langabezia potentzialaren tasa baino ez. Zifrak 2010ekoak baino are hobeak dira.

Nahiko salbuespenekoa bada ere, txinatar okupazio-eredua ez da hainbesterako 2014an, okupazioari dagokionez behintzat; izan ere, aktiboa izan daitekeen adineko Paraguaioko biztanleen artean, lana dutenak % 74,5 dira. Haien langabezia potentzialaren tasa, ordea, handiagoa da, % 17,8koa. Txinatarren kasuan bezala, zifra horiek talde horrek 2010ean zituenak baino hobeak dira.

Jatorri nazionalen biztanleen artean erregistratu den % 63,2 baino txikiagoa bada ere, beste kasu batzuetan enplegua eskuratzeko joera garrantzitsua ikusten da, eta okupazio-koefizienteak % 59-61koak dira. Egoera horretan daude EBko mendebaldeko herrialdeetako, Argentina/Txile/Uruguaiako eta gainerako Latinoamerikako biztanleak eta, gainera, 2010eko adierazlearen aldean ez da aldaketa negatibo deigarririk izan. Langabezia potentzialaren tasak, ordea, handiak dira, % 19,6koa mendebaldeko EBn, % 23,5koa Argentina/Txile/Uruguain eta % 28,4koa gainerako Latinoamerikan, hain zuzen ere.

Boliviako biztanleen okupazio-koefizientea % 56,3koa da eta, beraz, talde horretan ere koefizientea, konparatiboki, altua da eta 2010etik ez du izan aldaketa negatibo handirik. Langabezia potentzialaren tasa, ordea, % 35,5koa da.

Beste talde batzuetan ere, 16-66 urteko biztanleen okupazio-koefizienteak gehienak biltzen ditu eta erregistroak % 51-52,5koak dira. Hala gertatzen da Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan, Kolonbia/Ekuador/Perun eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan jatorria duten biztanleen artean. Talde horietan langabezia potentzialaren tasaren mailak Boliviakoaren antzekoak dira, % 33,4-35,8. Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikaren kasuan okupazio-koefizientea 2010ekoa baino handiagoa bada ere, ez da gauza bera gertatzen beste bi taldeetan; izan ere, haietan adierazleak -5 eta -7,3ko jaitsierak izan ditu eta langabezia potentzialaren tasan igoera garrantzitsuak egon dira.

Egoera Afrikako eskualdeetatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen artean handitu da gehien (-7,8 eta -13,8 puntu arteko jaitsierak okupazio-koefizientearen). Talde horietan, langabezia-tasak % 43,4raino iristen dira munduko gainerako herrialdeetan baina % 60tik gorakoak dira Afrikako taldeetan. Okupazio-koefizientea % 43,9koa da munduko gainerako herrialdeetan, % 31,6koa

² Okupazio-koefizientea erreferentziatzeko biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-66 urteko biztanleak) lan egiten ari diren biztanleek osatzen duten proportzioa da.



Senegalgo biztanleen artean eta % 25etik beherakoa Magreb eta gainerako Afrikako biztanleen artean. 2010ean, talde horietatik bat ere ez zegoen % 25eko atalasearen azpitik.

Garrantzitsua da azpimarratzea, pertsona landunak % 48,4 badira ere, azken urtean enpleguarekin kontakturen bat izan duten pertsonen proportzioa handiagoa dela, eta % 59raino iristen dela 16-66 urteko atzerriko jatorriko biztanleen artean; 2010eko % 65,8ko proportzioaren azpitik, ordea. Egun jarduerarik gabe dauden biztanleen % 8,8k boladaren batez lan egin dute, eta proportzio hori % 28,2raino baino ez da igotzen biztanle langabetuen kasuan. Proportzio hori % 48,2koa izan zen atzerriko jatorriko biztanle langabetuen kasuan 2010ean; taldeak 2014an enplegua lortzeko dituen zailtasunak islatzen ditu alde horrek.

Krisiaren inpaktua argi sumatzen da egun okupaziorik gabe dauden biztanleek lortzen duten lan-denbora mugatuan. EABI egin zen aldian lana zuten biztanleen kasuan azken urtean batez besteko okupazioa 10,6 hilekoa izan bazen (2010ean antzekoa zen talde horretan, 10,8koa), zifra 1,3 hilabetera jaisten da langabetuen artean eta 0,4ra ez-aktiboen artean (2,3 eta 0,6, hurrenez hurren, 2010ean).

3.2.2. Biztanle landunen ezaugarriak

16. Atzerriko biztanle landun gehienek zerbitzuen sektorean dihardute, guztien % 82,4k; proportzio hori 2010eko % 72,6 baino 10 puntu handiagoa da ia. Izan ere, zerbitzuen sektorean okupazioa % 10,9 igo da 2010 eta 2014 artean.

Hirugarren sektorearen barruan, batez ere hiru okupazio-adar nabarmentzen dira: etxeko zerbitzua (landun guztien % 29,3, % 21,3 2010ean), ostalaritza (% 15,1, % 16,8 2010ean) eta merkataritza (% 14,6, % 11,7 2010ean). Hainbeste ez bada ere, 2014an enpresaren zerbitzuen eginkizunak ere egin du aurrera: adar horrek atzerriko jatorriko biztanle landunen % 7,7 bildu ditu, 2010ean baino gehiago, orduan % 6,7 baitziren.

2014an zerbitzuen sektoreko lau adar horiek landun guztien % 66,7 biltzen ditu, 2010ean (% 56,5) baino 10 puntu gehiago. Ostalaritzak atzerriko jatorriko biztanleen artean bere okupazioaren % 12,3 galdu arren, gainerako adarren igoerari esker adar multzo horretan okupazio-sorrera garbia positiboa izan da 2010 eta 2014 artean, % 15,4koa, hain zuzen ere.

Zerbitzuen sektoretik kanpo, nabarmentzekoa da eraikuntzan okupazioak izandako jaitsiera; izan ere, biztanle landunen bolumena % 52 murriztu da. Sektore horrek atzerriko jatorriko biztanleen % 14,2ri ematen zien lana 2010ean, baina 2014an % 7ri baino ez die lana ematen. Proportzioa industriako % 8,4 baino are txikiagoa da, eta sektore horrek atzerriko jatorriko biztanleen % 10,8ri ematen zien lana 2010ean. Baina sektore horrek ere galera erlatibo handiak jasan ditu; izan ere, 2014an atzerriko landunak % 23,5 gutxiago dira.

Industrian eta eraikuntza okupazioak izandako gainbehera (-7.632 lanpostu, 2010ean zeudenen % 39,7) Afrikako, baina baita Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetako eta, neurri apalagoan, Kolonbia/Ekuador/Peruko jatorria duten biztanleen artean okupazio-koefizienteetan ikusitako jaitsiera handiari oso lotuta dago. Azken kasu horretan izan ezik, zeinean eraikuntzako eta industriako okupazioaren pisu erlatiboa batez bestekoaren inguruan baitzegoen, gainerako kasuetan bi sektore



horietako okupazioaren pisua EAeko atzerriko jatorriko biztanleen batez bestekoa baino askoz handiagoa zen, eta oraindik da.

17. Biztanle landunetako askok, % 44,3k, biztanle langile kualifikatu edo erdi-kualifikatu dihardute euren lanetan, baina ez-kualifikatuek talde nabarmena osatzen dute, % 34,6 baitira. Zuzendari, teknikari edo enplegatu administrari diharduten biztanleak landunen % 21,1 baino ez dira. Talde horren pisua, ordea, 2010eko % 16,9tik igo da, kualifikazio urrienera ere gertatu den bezala (% 32,5 2010ean). Dinamika hori tarteko taldearen kaltetan gertatu da, zeinean landunen % 50,6 baitzeuden 2010ean.

Jatorri geografikoaren arabera aldeek garrantzi gero eta handiagoa dute puntu horretan. Alde batetik, zuzendari, teknikari edo enplegatu diharduten biztanleen pisu erlatibo handiagoa ikusten da jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Txinan eta Argentina/Txile/Uruguain duten pertsonen kasuan, zeinen okupazio zifrak 2010ean ikusitakoak baino handiagoak baitira, 2014an % 40 baino gehiago izanik.

Kualifikatu gabeko langileek, aldiz, pisu oso handiak dauzkate, % 35etik gorakoak beti, Latinoamerikatik (Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikak izan ezik), Senegaldik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako gainerako biztanle taldeetan. Biztanle landunen erdiak, edo gehienak, daude, 2014an ere, lanbide mota horietan Kolonbia, Ekuador/Peru, Bolivia, Paraguai eta gainerako Latinoamerikatik etorritako etorkinen artean.

18. Atzerriko jatorriko biztanle landun gehienek, % 80,9k, soldatapeko dihardute ekonomiaren sektore pribatuan (% 82,1 2010ean). Halaber, nabarmenezkoak dira enplegatzaileak, biztanle autonomoak edo familia-laguntzak, % 15,5 baitira, goranzko bidean, 2010ean % 14,5 baitziren.

Biztanle ekintzaileen pisua bereziki handia da Txinatik datozen pertsona landunen artean; izan ere, kasu horretan nagusi dira, % 61,6, 2010ean baino are gehiago, orduan % 50,5 baitziren. Maila horietara iritsi gabe, handia da, halaber, ekintzaileen pisu erlatiboa EBko mendebaldeko herrialdeetatik eta Magrebitik etorritako biztanleen artean, % 25 inguru baitira.

19. Atzerriko jatorriko 63.141 soldatapekoen artean, nabarmenezkoa da behin-behinekotasuna eta kontraturik eza nagusi diren egoeren garrantzia. Aztertu diren biztanleen % 36,8k kontratu ez-mugagabearekin lan egiten dute eta % 7,2k kontraturik gabe, batera, guztien % 44,0k. Joera, ordea, egoera horien inpaktu erlatiboa murriztekoa da, 2010ean egoera horietan zeuden pertsonak % 51,2 baitziren. Behin-behinekotasunaren pisuak funtsean egonkor dirauen bitartean (% 36,6 2010ean), kontraturik gabeko egoeren pisua erdira jaitsi da, 2010ean % 14,6koa zelarik.

Mugagabeko kontratazioaren pisua, beraz, igo egin da, % 48,8tik % 56ra, 2010 eta 2014 artean. Zenbaki absolutuetan, 2010ean kontratu mugagabea zuten atzerriko jatorriko pertsonak 31.884 izatetik 2014an 35.376 izatera igaro da, % 11 gehiago. Aldi baterako edo kontraturik gabeko kontratazioa, aldiz, % 16,8 jaitsi da, 2010eko 33.388 kasuetatik 2014ko 27.765 kasuetara.

2010ean bezala, ordea, kontratazio ez-mugagabearen eta kontraturik ezaren inpaktua Paraguai, gainerako Latinoamerika, Senegal eta gainerako Afrikatik etorritako atzerriko jatorriko soldatapeko biztanle gehienek pairatzen dute oraindik.



20. Atzerriko jatorriko biztanle landunei buruzko lan-datu hauek ere azpimarratu behar dira:

- a) % 7,5ek Gizarte Segurantzari afiliatu gabe dihardute; proportzio horrek beheranzko bide argia darama 2010eko % 14,7tik.

Adierazle hori % 10 inguruko mailetan dago kokatuta Errumaniako eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetako jatorria duten biztanleen artean. Oraindik % 20tik gorako mailak dauzka Paraguai eta gainerako Latinoamerikatik etorritako biztanleen artean.

- b) Astean 30 orduz baino gutxiagoz lan egiten duten biztanle landunen proportzioak gora egin du, % 21,7tik % 30,4ra.
- c) Atzerriko jatorriko biztanle landunen % 8,1 enpleguaniztunak dira, 2010ean (% 7,3) baino apur bat gehiago.
- d) Atzerriko jatorriko biztanleen % 15,7 beste lan baten bila ari dira, egungoaren aurreko aukera gisa edo baliabideak osatzeko. Proportzioa 2010eko % 17,9 baino txikiagoa da.

3.2.3. Biztanle langabetuen egoera

21. 2014an langabezian zeuden atzerriko jatorriko 48.880 pertsonen dagokienez, igoera deigarria izan du luzaroko eta oso luzaroko langabeziaren inpaktuak. Lan bila urte bat baino gehiago eman duten pertsonen proportzioa 2010eko % 41,5etik 2014ko % 65,1era igo da. Oso luzaroko langabeziaren inpaktua (bi urte baino gehiago lan bila), bestalde, % 11,4tik % 39,4ra igo da erreferentziako aldirian. 2014an, oso luzaroko langabeziaren pisu erlatiboa Txinatik eta Argentina/Txile/Uruguaitik etorritako biztanleen kasuan baino ez dago % 20ren azpitik. EBko mendebaldeko herrialdeetatik, Afrikako eskualdeetatik, Paraguitik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanle langabetuen % 40k pairatzen dute, ordea.

22. Atzerriko jatorria duten biztanle langabetuen artean enplegua bilatzeko bide nagusia Lanbidera jotzea da (% 78,8; 2010ean, aldiz, % 65k jotzen zuten edozein enplegu-zerbitzutara). ABLE-etara jo dutenak, ordea, 2010ean % 16,8 izatetik 2014an % 11 izatera igaro dira.

Enplegu-eskaintzen jarraipena egiteko bigarren bide garrantzitsu bat Internet da; bilaketa mekanismo horretara langabetuen % 36,2k jo zuten 2014an. 2010 eta 2014 artean, ordea, % 36,2tik % 13,7ra jaitsi da jarraipena prentsan edo antzekoetan egiten duten pertsonen proportzioa.

- Atzerriko jatorriko 16 urte eta gehiagoko biztanleen % 74,1 bere jatorriko herrialdera itzuli dira inoiz. Gutxienez urtean behin joan ohi direnen proportzioa, ordea, % 23,4koa da, eta jaitsiera argia izan du 2010etik, orduan % 31,6koa baitzen.
- Aztertutako biztanleen % 93,7k harremana daukate jatorriko herrialdeko familiarekin, 2010ean baino gehiagok, orduan % 92,4 baitziren. % 44,5ek gutxienez asteroko komunikazioa daukate, eta % 12,7k egunerokoa ere badaukate. 2010etik eguneroko komunikazio moduen inpaktuak berdin iraun duen bitartean (% 12,9 urte hartan), 2014an jaitsiera nabarmena izan du asteroko komunikazioaren erabilerak (% 58,4 2010ean).
- Aztertutako biztanleen % 17,7k diru-bidalketak egiten ditu jatorriko herrialdera, 2010ean baino gutxiagok, orduan % 29,3 baitziren. Bidalketak, gutzira, hileko 6,29 milioi eurokoak dira, 2010eko hileko 7,92 milioi euroak baino % 20,6 gutxiago.

Kanpora egindako bidalketetan alde handiak daude etorkinen jatorriaren arabera. Senideei bidalketak egiteko joerarik txikiena dutenak -16 urtetik gorako biztanleen % 10 baino gutxiago- EBko mendebaldeko herrialdeetakoak, Magrebkoak eta Argentina/Txile/Uruguaiakoak dira. Proportzioa % 13-21,1ekoa da Errumania eta EBko ekialdeko beste herrietako, Kolonbia/Ekuador/Peruko, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikako, Txinako, gainerako Afrikako eta munduko gainerako herrialdeetako biztanleen artean. Mailarik altuenak, % 32,1-42,7koak, Bolivia, Paraguai, gainerako Latinoamerika eta Senegalgo biztanleei dagozkie. Senegalgo taldearen kasuan izan ezik, munduko gainerako herrialdekoekin batera, 2010 eta 2014 artean kanpora egindako bidalketen igoera absolutua ikusten den talde bakarrak dira.

Jatorriko herrialdera diru-bidalketak egiten dituzten biztanleen artean, jasotzaile nagusiak gurasoak dira oraindik (% 57,3). % 10,2k euren ezkontideari bidaltzen diete eta % 42k euren seme-alEABI. Jasotzaileen % 12,7 neba-arrebak dira, eta bidalketa horien onuradunen % 4,4 beste senide batzuk dira.

2.3. Jabetzak jatorriko herrialdean

47. 2010 eta 2014 artean Estatuko lurraldetik kanpo bizileku motako etxebizitza bat edo gehiagoren jabe diren atzerriko jatorriko 16 urte eta gehiagoko biztanleen proportzioa % 20,6tik % 11,2ra murriztu da. % 0,4k baino ez daukate ekoizpenerako ondasunak, hala nola dendak, saltokiak edo jarduera ekonomikorako beste mota batzuetako ondasunak (% 1,8 2010ean). % 3,1ek beste ondasun mota batzuk daukate, hala nola lurrak, abereak, ibilgailuak, etab. (% 5,5 2010ean).



Ondare-ondasunak dauzkatenen maila handiagoa da, kasu guztietan, Euskadin eta Espainian Estatuko lurraldetik kanpo baino. % 15,4k etxebizitza bat edo gehiago daukate jabetzan, % 1,4k ekoizpenerako ondasunak eta % 16,4k beste mota batzuetako ondasunak; azken kategoria horretako proportzio handia ibilgailuak edukitzeari dago lotuta. Hala ere, kasu horretan ere, jabetza dutenen proportzioak 2010ekoak baino txikiagoak dira, % 18, % 4,2 eta % 24,5 baitziren orduan, hurrenez hurren.



**ORI-1. EAEn jaio ez diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, familia berriz elkarteari lotutako adierazleen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(Egoera bakoitzean dauden %a)**

Jatorrizko eremua		Ezkontidea edo seme-alabak utzi zituen	Seme-alabak elkartu gabe ditu	Ezkontidea edo seme-alabak ekarriko ditu	Beste senide batzuk ekarri ditu	Beste senide batzuk ekarriko ditu
2010	EBko mendebaldea	9,2	2,7	,9	11,4	1,5
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	36,3	10,3	,9	17,4	4,4
	Magreb	15,9	6,3	5,6	11,2	14,1
	Argentina, Txile, Uruguai	20,3	13,7	4,5	8,3	3,6
	Kolombia, Ekuador, Peru	45,6	21,3	8,8	24,1	16,6
	Bolivia	43,0	25,7	12,0	15,1	20,1
	Paraguai	44,2	24,3	7,9	20,7	5,2
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	39,2	17,3	5,9	12,6	15,1
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	32,1	18,4	7,5	20,9	9,0
	Txina	30,4	11,7	5,6	17,3	8,1
	Senegal	50,9	48,2	26,3	7,8	19,8
	Afrikako gainerako herrialdeak	28,7	25,2	11,0	25,8	20,3
	Munduko gainerako herrialdeak	36,9	24,3	15,3	6,3	6,6
	Guztira	31,9	16,1	7,0	15,9	11,3
2014	EBko mendebaldea	9,5	4,4	,2	2,5	,2
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	27,2	9,3	,6	6,9	,9
	Magreb	14,9	4,8	2,8	3,3	4,8
	Argentina, Txile, Uruguai	13,3	5,7	,0	6,0	2,9
	Kolombia, Ekuador, Peru	36,3	13,2	5,3	11,9	8,5
	Bolivia	44,1	28,1	4,7	6,7	5,0
	Paraguai	42,5	27,5	4,9	11,9	3,5
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	26,7	12,2	4,4	9,6	3,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	45,9	34,3	5,2	7,1	2,4
	Txina	43,4	11,1	4,3	6,7	2,1
	Senegal	45,2	38,4	16,0	6,2	11,4
	Afrikako gainerako herrialdeak	25,5	22,2	4,8	1,7	4,1
	Munduko gainerako herrialdeak	25,9	11,9	2,6	8,5	8,9
	Guztira	28,0	14,1	3,5	6,9	4,5

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ORI-2. EAEn jaio ez diren eta jatorrizko herrialdean ezkontidea eta/edo seme-alabak dituzten 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, familia- eta gizarte-arazoak dituzten kontuan hartuta eta eremu geografikoaren arabera (talde zehaztua). 2010 eta 2014 (Egoera bakoitzean daudenen %-a)

Jatorrizko eremua	Banantzea edo dibortzioa	Seme-alaben maitasuna galtzea	Seme-alabek zer arazo dituzten ez jakitea	Gizarte-arazoak dituzten seme-alabak
2010 EBko mendebaldea	15,9	41,7	23,1	18,9
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	6,1	2,9	17,9	3,5
Magreb	21,3	29,0	22,2	13,9
Argentina, Txile, Uruguai	5,4	,0	2,1	2,1
Kolombia, Ekuador, Peru	14,2	14,1	15,3	1,3
Bolivia	12,1	11,8	18,2	17,5
Paraguai	13,5	16,4	8,9	2,7
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	13,9	8,1	6,2	6,2
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	7,5	7,9	5,5	11,8
Txina	,0	3,6	,0	7,7
Senegal	14,3	34,8	18,2	7,0
Afrikako gainerako herrialdeak	13,7	23,5	26,7	13,5
Munduko gainerako herrialdeak	11,2	9,1	1,9	,0
Guztira	12,3	14,1	13,4	6,9
2014 EBko mendebaldea	7,9	7,9	,0	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	11,3	,0	6,2	,0
Magreb	16,3	33,9	29,3	11,5
Argentina, Txile, Uruguai	23,2	8,2	,0	,0
Kolombia, Ekuador, Peru	21,1	14,4	9,9	4,4
Bolivia	19,2	14,4	10,3	11,1
Paraguai	27,6	12,9	15,4	9,2
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	21,2	3,3	4,0	,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	21,5	8,6	10,4	9,1
Txina	4,5	,0	7,9	,0
Senegal	7,4	14,1	7,8	2,9
Afrikako gainerako herrialdeak	,0	7,4	,0	,0
Munduko gainerako herrialdeak	15,9	5,8	16,9	2,9
Guztira	16,8	10,8	9,7	5,3

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ORI-3. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak: Jatorrizko herrialdearekiko harreman-adierazleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
 (% egora bakoitzean, eta jatorrizko herrialdera hilabete bakoitzean bidalitako diruaren batura, €-tan) Diru-bidalketaren hileko batura

	Jatorrizko herrialdera itzuli da	Urtero itzultzen da jatorrizko herrialdera	Harremanetan dago jatorrizko herrialdean duen familiarekin	Gutxienez astean behin dago harremanetan	Egunero dago harremanetan	Diru-bidalketa	Diru-bidalketaren hileko batura
Jatorrizko eremua							
2010							
EBko mendebaldea	91,1	74,7	81,5	51,3	9,1	2,5	205.229
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	85,5	47,3	94,3	65,4	17,6	29,3	861.636
Magreb	89,7	51,1	92,4	45,8	5,7	23,0	602.260
Argentina, Txile, Uruguai	66,8	18,1	88,2	64,7	24,5	15,2	182.165
Kolombia, Ekuador, Peru	76,9	10,0	94,7	63,0	12,9	41,1	2.077.330
Bolivia	47,0	6,4	94,5	48,8	7,1	39,4	739.655
Paraguai	30,6	3,5	94,3	66,9	13,2	54,1	409.709
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	66,7	25,0	96,2	64,6	19,6	20,2	405.141
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	66,8	20,8	95,5	59,3	15,7	49,8	1.209.134
Txina	76,7	17,0	92,0	64,2	21,7	34,2	202.744
Senegal	47,0	15,8	98,8	73,7	15,9	56,5	323.092
Afrikako gainerako herrialdeak	61,2	10,2	96,9	57,3	6,7	25,8	175.952
Munduko gainerako herrialdeak	72,2	40,5	90,6	61,9	14,9	33,1	524.329
Guztira	74,2	31,6	92,4	58,4	12,9	29,3	7.918.376
2014							
EBko mendebaldea	95,2	64,8	88,1	41,5	11,0	1,7	41.483
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	84,3	39,1	92,2	47,5	12,7	13,0	352.447
Magreb	80,0	36,1	93,6	22,2	4,2	8,2	407.270
Argentina, Txile, Uruguai	78,0	17,6	94,9	54,4	14,0	5,8	91.799
Kolombia, Ekuador, Peru	79,2	6,4	95,1	47,2	15,5	20,1	997.757
Bolivia	72,8	14,0	96,0	55,3	20,1	32,1	814.731
Paraguai	50,9	4,4	96,9	67,7	25,6	42,3	503.209
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	72,5	18,6	93,0	60,5	14,8	16,0	281.862
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	50,5	6,9	96,9	54,1	17,0	42,7	1.632.499
Txina	84,4	10,8	90,9	30,0	7,2	21,1	163.463
Senegal	64,1	17,6	99,4	47,4	10,4	35,7	298.504
Afrikako gainerako herrialdeak	46,6	5,5	92,4	24,0	9,0	15,6	148.484
Munduko gainerako herrialdeak	59,3	18,6	94,2	47,3	11,5	16,9	554.597
Guztira	74,1	23,4	93,7	44,5	12,7	17,7	6.288.105

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ORI-4. Jatorrizko herrialdera dirua bidaltzen duten 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, hartzaille motaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (%-tan)

Jatorrizko eremua	Seme-alabak	Ezkontidea/ Bikotekidea	Aita/Ama	Anai-arrebak	Beste senide batzuk
2010 EBko mendebaldea	47,9	8,5	24,0	13,0	15,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	22,4	4,0	65,7	20,5	21,0
Magreb	9,0	12,0	73,0	14,9	4,1
Argentina, Txile, Uruguai	18,5	1,9	70,1	1,9	11,4
Kolombia, Ekuador, Peru	35,8	3,1	63,9	14,4	9,6
Bolivia	50,3	9,1	48,6	7,7	8,2
Paraguai	38,6	4,2	58,0	7,4	5,6
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	35,5	3,4	54,8	26,5	8,3
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	29,7	,0	68,0	21,5	17,1
Txina	20,2	4,5	73,4	1,7	11,2
Senegal	33,1	45,3	70,5	26,8	1,9
Afrikako gainerako herrialdeak	22,0	13,4	70,6	19,8	,0
Munduko gainerako herrialdeak	36,4	8,3	67,6	2,7	2,9
Guztira	31,1	6,9	63,8	14,6	9,6
2014 EBko mendebaldea	57,9	30,1	,0	42,1	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	24,5	8,5	76,4	10,3	3,7
Magreb	6,8	6,8	93,2	25,5	,0
Argentina, Txile, Uruguai	17,0	9,2	34,8	28,6	28,2
Kolombia, Ekuador, Peru	34,3	,0	51,7	14,3	4,1
Bolivia	58,0	7,8	44,0	6,7	8,7
Paraguai	44,4	9,5	59,1	13,5	1,1
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	34,0	,0	74,4	8,3	3,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	63,7	12,7	53,7	7,2	,0
Txina	24,9	2,9	70,3	15,8	9,6
Senegal	52,7	46,4	44,2	18,3	1,5
Afrikako gainerako herrialdeak	60,0	10,9	48,8	3,6	9,8
Munduko gainerako herrialdeak	34,3	26,3	53,6	18,1	8,9
Guztira	42,0	10,2	57,3	12,7	4,4

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



ORI-5. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ondasunak jabetzan izatearen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(%-tan)

	Etxebizitzak (atzerrian)	Produkzio- erabilerako ondasunak (atzerrian)	Bestelako ondasunak (atzerrian)	Etxebizitzan (Estatuan)	Produkzio- erabilerako ondasunak (Estatuan)	Bestelako ondasunak (Estatuan)
Jatorrizko eremua						
2010 EBko mendebaldea	22,6	,5	5,6	42,9	5,7	49,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	29,3	,9	8,6	11,0	1,2	29,7
Magreb	9,1	,4	1,7	13,0	6,1	22,0
Argentina, Txile, Uruguai	17,5	2,5	4,0	18,2	5,0	29,8
Kolombia, Ekuador, Peru	24,6	1,5	4,3	17,3	2,1	20,1
Bolivia	15,1	,7	6,6	2,8	1,4	9,5
Paraguai	18,6	2,6	8,6	,8	,3	5,2
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	13,9	,7	2,9	13,2	1,2	13,8
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	30,0	,0	7,8	20,3	3,2	17,2
Txina	36,3	2,9	8,3	35,0	32,9	30,5
Senegal	14,2	,3	4,3	5,5	,5	8,8
Afrikako gainerako herrialdeak	13,1	2,0	6,8	15,4	,0	23,2
Munduko gainerako herrialdeak	25,6	13,8	9,9	22,7	10,8	34,5
Guztira	20,6	1,8	5,5	18,0	4,2	24,5
2014 EBko mendebaldea	14,2	,8	3,9	50,1	1,6	32,1
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	22,3	,0	3,3	11,1	,5	21,4
Magreb	2,2	,6	,0	7,8	,5	14,6
Argentina, Txile, Uruguai	12,2	,0	4,0	31,0	4,3	38,3
Kolombia, Ekuador, Peru	10,7	,0	1,8	11,7	,2	13,0
Bolivia	7,9	,9	8,1	5,5	1,0	12,1
Paraguai	18,5	,5	7,0	3,4	1,2	3,7
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	7,5	,6	2,1	12,5	2,1	12,2
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	15,6	1,1	4,5	13,1	2,3	8,3
Txina	24,2	,5	4,6	23,7	12,4	24,8
Senegal	6,6	,0	2,5	3,9	,5	5,5
Afrikako gainerako herrialdeak	2,2	,0	,6	4,1	,0	2,8
Munduko gainerako herrialdeak	12,2	,2	4,5	12,2	1,5	14,5
Guztira	11,2	,4	3,1	15,4	1,4	16,4

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



3. HEZKUNTZA ESPERIENTZIA EUSKADIN, ETA HIZKUNTZEN JAKINTZA MAILA

3.1. Hezkuntza arautuaren esperientzia Euskadin

48. Guztira atzerriko jatorriko 16 urtetik gorako 36.982 pertsonak egiten dituzte egun, edo egin dituzte uneren batean, araututako ikasketak EAEn. Egoera horretan daudeneko proportzioa % 23,1ekoa da, 2010eko % 22,6 baino apur bat handiagoa.

Euskadin hezkuntzako esperientzia duten atzerritarren % 55 haur edo lehen hezkuntzan (% 28,9) edo DBHn (% 26,1) sartu ziren EAEn araututako irakaskuntza-prozesuan. % 27,6 derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengoan edo lanbide heziketan sartu ziren, eta % 17,4 unibertsitate garaian. Azken proportzio hori deigarria da eta aurrerapen nabarmena islatzen du 2010eko % 10aren aldean.

Euskadin hezkuntza-esperientzia duten pertsonen artean, sisteman unibertsitate garaian sartu direnak, 2014an, % 14-16 inguru dira Kolonbia/Ekuador/Perutik eta Txinatik etorritako biztanleen artean, eta % 24 Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetako, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikako, gainerako Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeetako biztanleen artean. EBko mendebaldeko herrialdeetatik etorritako pertsonen artean % 33,1 dira eta proportziorik handiena % 38,7koa da Argentina/Txile/Uruguako biztanleen artean.

% 90,2 A ereduko irakaskuntzaren eremuan sartu ziren, 2010ean baino gehiago, orduan % 82,9 izan baitziren. % 6,9 B ereduan sartu ziren eta % 2,7 D ereduan. B edo D ereduetan sartzeko direnen proportziorik handienak, % 13,5-20koak, euskal hezkuntza-sisteman EBko mendebaldeko herrietatik, Kolonbia/Ekuador/Perutik, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik eta gainerako Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean gertatzen dira.

49. EAEn hezkuntza-sisteman sartzeko hasierako prozesua aztertzean, alderdi hauek gertatzen dira deigarriak:

- a) Sisteman sartu zirenen % 13,5ek atzerritarren jatorriko herrialdean lortutako hezkuntza mailaren azpiko batean egin zuten. Proportzio hori 2010eko % 14,4 baino apur bat txikiagoa da.
- b) Hezkuntza-sisteman sartzeko, atzerriko jatorriko biztanleen % 18,3k ez zuten ulertzen ez hitz egiten EAEn hizkuntza ofizial bakar bat ere (% 17,9 2010ean).

Euskadin hezkuntza-esperientzia duten biztanleen % 3,7k diote laguntza falta izan dutela eskatzen zen hizkuntza maila lortzeko; proportzio hori % 5,4-7,3koa da Magrebko, Txinako eta munduko gainerako herrialdeetako biztanleen artean, eta proportziorik handiena, % 13,1ekoa, gainerako Latinoamerikatik etorritako biztanleei dagokie.

Edonola ere, testuinguru horretan, azpimarratzekoa da A irakaskuntza-ereduan sartzeko jaso duten orientabidearen garrantzia. EAEn araututako hezkuntza-sisteman sartu zirenen pertsonen % 59,2 eredu horretara bideratu zituzten; proportzio hori 2010eko % 43,5 baino nabarmen handiagoa da.



- c) EAEko araututako hezkuntza-sisteman esperientzia duten atzerritarren % 4,4 kexu da hasieran ez dutelako laguntzarik eskatzen den prestakuntza mailara iristeko. 2010ean baino proportzio apur bat txikiagoa, orduan % 4,7 baitziren. Arazo hori aipatzen dutenen proportzioa handiagoa da -Euskadin prestakuntzako esperientzia duten biztanleen % 6-10,4- Errumania eta EBko ekialdeko herrialdeetatik, Magrebtik, gainerako Latinoamerikatik eta Txinatik etorritako biztanleen artean.
- d) Aztertutako biztanleen % 18,6k eskolatzea atzerritar ikasle asko dituen ikastetxe batean hasi zela azpimarratzen dute; proportzio horrek igoera esanguratsua islatzen du, 2010ean % 14,9 baitziren. Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetako eta Kolonbia/Ekuador/Peruko jatorria dutenen artean % 18,3-20,8k aipatzen dute arazo hori, Txinatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoen artean % 27,2-29k, eta Afrikako eskualdeetatik etorritakoen artean % 31,7-48k.
- e) Norberaren integrazioaren adierazleei dagokienez, % 7,4k hasieran harremana ikastetxeko atzerriko ikasleekin baino ez zutela azpimarratzen dute; kasu horretan ere, proportzioa 2010eko % 4,1 baino handiagoa da. Pertsonaren jatorriari lotutako arazoien ondoriozko isolamendu arazoak eta beste ikasleen arbuioa aipatzen dituzten pertsonen proportzioa, ordea, 2010eko % 5 ingurutik % 4 ingurura jaitsi da. Bi dimentsio horietan (jatorriak eragindako isolamendua eta arbuioa), gainerako Latinoamerikako biztanleen artean baino ez daude % 10etik gorako mailak. Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetatik, Kolonbia/Ekuador/Perutik eta Txinatik etorritako biztanleen artean ere, % 4,5/5etik gertuko mailak edo handiagoak daude aztertutako bi adierazleetan.

50. Egun EAEko araututako irakaskuntza-sisteman sartuta dauden atzerriko jatorriko pertsonen ikasteko aukerei dagokienez, % 75,9ren helburu nagusia lehen hezkuntzaren ondorengoa da. Talde horren barruan, % 25,1en helburuak gradu ertaineko LHrekin edo bigarren hezkuntzarekin pareka daitezke, % 15,2renak goi-mailako LHrekin eta % 35,6renak hirugarren mailako titulazioekin, goi-mailako ikasketak nagusi direlarik (% 25,7; % 9,8k, aldiz, erdi-mailako ikasketak nahiago dituzte).

Guztira, aztertutako biztanleen % 50,7k bilatzen dituzte ikasketa kualifikatuak (goi-mailako LH edo hirugarren mailako ikasketak). Adierazle hori aztertuta, alde handiak daude area geografikoen arabera. Alde batetik, % 60tik gertuko edo gorako mailak daude EBko mendebaldeko herrialdeetatik eta Latinoamerikako herrialde ia guztietatik -Paraguaitik izan ezik- etorritako biztanleen artean. Posizio oso urrunean, ikasketa-helburu hori dute Paraguaitik eta Txinatik etorritako % 45,6-54,7k. Proportzioa, ordea, % 30etik gertukoa edo txikiagoa da Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetatik, Afrikako eskualdeetatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoen kasuan.

3.2. Hizkuntzen ezagupena

51. Biztanleen kualifikazio-prozesuan funtsezkoa da EAEko hizkuntza ofizialak, ingelesa, eta nazioarteko testuinguruan nahiz gure autonomia-erkidegoko testuinguruan bertan oso zabaldua dauden beste hizkuntza batzuk ikasi ahal izatea. Alderdi horri dagokionez, hauek dira EABIren emaitza nagusiak:

- a) Lehenik, nabarmentzekoa da gaztelaniaren ezagupenaren nagusitasuna. Atzerriko jatorriko 16 urtetik gorako % 0,6k baino ez diote ez dakitela gaztelaniaz hitz egiten, % 83,4k ezagupen maila ona edo oso ona dute, % 7,7k nahikoa ea % 8,4rena mugatua da edo hobegarria. Talde geografiko bakoitzeko biztanleen % 75ek baino gehiagok euren ezagupen maila gutxienez nahikoa dela diote,



Txinako jatorria duten biztanleen kasuan izan ezik, % 37,5 baino ez baitira (2010ean baino gutxiago, orduan % 52,2 baitziren). Batere ez dakitenen proportziorik handiena % 2,8koa da, Txinako jatorria duten biztanleen artean.

- b) Gaztelaniari buruzko datuen eta euskarari buruzkoen artean alde handiak daude: 16 urtetik gorako atzerritarren % 71,7rentzat euskara guztiz ezezaguna da, 2010ean baino are gehiagorentzat, orduan % 66,7 baitziren. Argentina/Txile/Uruguaitik eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik iritsitako biztanleen artean baino ez dira % 45 inguru gutxienez hizkuntzaren ezagupen mugatua edo hobegarria dutela diotenak.

Euskararen ezagupen nahikoa dutenak ez dira aztertutako biztanleen % 4,8 baino gehiago, eta % 3,1ek baino ez diote ondo edo oso ondo dakitela euskaraz (2010eko % 5,3 eta % 3,8ko proportzioen azpitik). EBko mendebaldeko herrialdeetatik (% 11,7, eta ezagupen ona edo oso ona dutenak % 9,1) eta Argentina/Txile/Uruguaitik (% 10,9 eta % 4,2, hurrenez hurren) etorritako biztanleen kasuan baino ez dira % 10 baino gehiago ezagupen nahikoa dutenak.

- c) Halaber, deigarria da euskaraz dakitenak ingelesez dakitenak baino gutxiago izatea, argi eta garbi. 16 urtetik gorako atzerritarren % 50,1ek diote ildo horretatik hizkuntza horren ezagupenen bat dutela, oso mugatua eta hobegarria bada ere (% 46,6 2010ean). % 19k ezagupen ona edo oso ona dutela diote, 2010ean baino gehiago, orduan % 14,4 baitziren. Proportzio hori % 25 baino handiagoa da EBko mendebaldeko herrialdeen, Argentina/Txile/Uruguaireren, gainerako Afrikaren eta munduko gainerako herrialdeen kasuan.
- d) Bestalde, etorkinen taldearen heterogenotasun handiak beste hizkuntza batzuen ezagupen ona edo oso ona duten atzerriko jatorriko biztanleen poltsa esanguratsuak egotea bermatzen du. 16 urtetik gorako etorkinen artean, ildo horretatik, 33.047 pertsonak diote frantsesez ondo dakitela (25.988 2010ean), eta 22.387 daude egoera horretan arabierari dagokionez (19.216 2010ean). Atzerriko jatorriko 10.000 pertsonak baino gehiagok ondo edo oso ondo ezagutzen dituzten beste hizkuntza batzuk portugesa (14.725) edo errumaniera (14.030) dira, eta errusieraz dakitenak 5.000 baino gehiago dira (5.852). Erreferentziako biztanleen artean gutxienez 16 urtetik gorako 1.000 pertsonak ondo ezagutzen dituzten beste hizkuntza batzuk, egoera horretan dauden pertsonen kopuruaren arabera, txinera, alemana, italiara, guarania, urdua, berberera, wolofera, ukrainiera eta poloniera dira.



EDU-1. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin egindako ikasketa arautuen inguruan izandako esperientziaren arabera. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Ikasketa arautuetan izandako esperientzia	2010		2014	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	33.846	22,6	36.982	23,1
Ez	115.638	77,4	123.312	76,9
Guztira	149.484	100,0	160.294	100,0

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE

EDU-2. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin egindako ikasketa arautuetan izandako esperientziaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010		2014	
	Bai	Ez	Bai	Ez
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	32,2	67,8	19,1	80,9
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	15,2	84,8	15,2	84,8
Magreb	21,1	78,9	25,4	74,6
Argentina, Txile, Uruguai	30,6	69,4	30,4	69,6
Kolombia, Ekuador, Peru	25,1	74,9	30,2	69,8
Bolivia	23,8	76,2	17,5	82,5
Paraguai	12,7	87,3	10,5	89,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	29,3	70,7	31,8	68,2
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	18,4	81,6	18,0	82,0
Txina	13,0	87,0	18,7	81,3
Senegal	11,1	88,9	25,6	74,4
Afrikako gainerako herrialdeak	15,9	84,1	21,8	78,2
Munduko gainerako herrialdeak	16,4	83,6	20,6	79,4
Guztira	22,6	77,4	23,1	76,9

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-3. Ikasketa arautuak EAEn egin dituzten edo egiten ari diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin jasotako irakaskuntza mota eta hizkuntza-eredua kontuan hartuta, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (% horizontalak)

Jatorrizko eremua	Zer ikasketa-mailatan sartu zinen EAEko hezkuntza-sisteman?				Egin zenituen ikasketen hizkuntza-eredua			
	Haur-hezkuntza edo lehen hezkuntza	DBH	Bigarren Hezkuntza/Lanb. Hez.	Unibertsitate-ikasketak	A	B	D	Informaziorik gabe
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
2010 EBko mendebaldea	64,5	10,5	11,4	13,6	68,2	6,5	25,3	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	19,6	19,2	52,0	9,2	75,7	8,6	15,7	,0
Magreb	54,0	22,3	10,9	12,8	83,4	11,9	4,7	,0
Argentina, Txile, Uruguai	28,7	33,3	24,0	14,0	84,5	13,3	2,2	,0
Kolombia, Ekuador, Peru	27,4	35,0	31,4	6,2	94,8	5,2	,0	,0
Bolivia	37,6	35,1	20,7	6,6	69,2	8,8	22,0	,0
Paraguai	,0	54,2	45,8	,0	100,0	,0	,0	,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	34,0	38,3	22,7	4,9	94,7	4,1	1,2	,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	26,0	15,9	54,4	3,7	75,1	10,0	14,9	,0
Txina	27,1	54,1	7,8	11,1	84,9	7,3	7,8	,0
Senegal	8,8	53,8	37,3	,0	88,8	,0	11,2	,0
Afrikako gainerako herrialdeak	,0	,0	78,2	21,8	100,0	,0	,0	,0
Munduko gainerako herrialdeak	51,8	,0	23,8	24,4	75,7	24,3	,0	,0
Guztira	38,0	25,5	26,5	10,0	82,9	8,0	9,1	,0
2014 EBko mendebaldea	50,0	3,1	13,8	33,1	79,3	18,0	1,8	,9
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	38,1	25,5	12,4	24,0	96,2	3,8	,0	,0
Magreb	27,7	34,5	30,2	7,6	97,9	2,1	,0	,0
Argentina, Txile, Uruguai	6,2	23,9	31,1	38,7	96,6	,0	3,4	,0
Kolombia, Ekuador, Peru	26,5	33,0	26,7	13,9	86,5	11,5	2,1	,0
Bolivia	28,4	18,7	49,5	3,4	100,0	,0	,0	,0
Paraguai	18,1	27,5	45,6	8,8	93,4	6,6	,0	,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	19,1	27,8	31,6	21,5	81,8	9,1	9,1	,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	23,5	10,9	45,9	19,6	86,5	8,9	4,6	,0
Txina	28,8	31,8	23,7	15,7	97,7	,0	2,3	,0
Senegal	48,4	22,5	29,1	,0	92,7	3,8	3,5	,0
Afrikako gainerako herrialdeak	47,5	27,4	21,0	4,1	90,9	3,8	5,3	,0
Munduko gainerako herrialdeak	28,3	29,5	18,3	23,9	91,0	4,7	2,9	1,4
Guztira	28,9	26,1	27,6	17,4	90,2	6,9	2,7	,2

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-4. Ikasketa arautuak EAEn egin dituzten edo egiten ari diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, hezkuntza-integrazioari buruzko alderdien eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (%-a taldean)

Jatorrizko eremua	Maila txikiagoan sartu zen % hor.	Ez zuen ulertzen/hitz egiten EAEko hizkuntzaren bat % hor.	A ereduari buruzko orientazioa % hor.	Etorkin kopuru oso handia % hor.	Jatorrizko ezaugarriengatik baztertea % hor.	Jatorrizko ezaugarriengatik gaitzestea % hor.	Hizkuntza-maila lortzeko laguntzarik ez izatea % hor.	Prestakuntzamaila lortzeko laguntzarik ez izatea % hor.	Ikasle atzerritarrekin soilik izatea harremana % hor.
2010 EBko mendebaldea	1,6	12,5	35,6	6,1	3,2	,0	1,6	1,6	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	11,1	44,7	12,8	6,9	3,2	3,2	3,2	5,1	3,5
Magreb	17,8	58,9	58,9	28,8	2,3	2,3	5,9	5,9	8,7
Argentina, Txile, Uruguai	20,2	,0	30,0	19,5	,0	,0	1,2	6,1	,0
Kolombia, Ekuador, Peru	12,8	1,0	55,1	24,7	3,9	4,4	2,5	6,5	3,2
Bolivia	39,3	,0	37,6	9,2	25,5	25,0	2,1	6,4	18,9
Paraguai	16,9	,0	43,2	15,8	,0	,0	,0	,0	11,7
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	11,1	15,3	54,7	15,1	6,5	6,5	10,8	6,9	1,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	27,7	,0	28,8	,0	,0	5,9	5,9	2,8	,0
Txina	45,8	53,0	66,1	5,9	13,7	9,8	11,9	8,2	6,0
Senegal	56,8	49,6	66,9	16,2	19,7	19,7	2,2	2,2	7,9
Afrikako gainerako herrialdeak	,0	43,9	15,0	11,8	,0	,0	,0	,0	,0
Munduko gainerako herrialdeak	,0	11,1	51,9	,0	,0	,0	,0	,0	,0
Guztira	14,4	17,9	43,5	14,9	5,0	4,7	3,7	4,7	4,1
2014 EBko mendebaldea	1,3	21,8	32,3	4,5	,0	,0	,0	1,2	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	12,8	19,2	69,2	20,8	8,1	4,5	,0	8,4	8,5
Magreb	14,5	35,1	68,0	31,7	1,1	1,1	6,6	6,6	11,8
Argentina, Txile, Uruguai	7,4	,0	42,4	2,3	3,4	2,3	,0	3,4	,0
Kolombia, Ekuador, Peru	18,0	,0	56,1	18,3	5,0	7,2	2,7	4,5	5,0
Bolivia	34,1	,0	74,0	6,2	7,8	7,8	2,9	2,9	10,8
Paraguai	28,3	,0	61,0	8,8	4,4	4,4	,0	,0	7,9
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	4,6	17,8	55,2	6,0	4,4	2,9	4,4	2,9	5,8
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	7,2	,0	74,1	6,4	10,4	10,4	13,1	10,4	8,3
Txina	10,8	45,2	78,0	27,2	8,4	6,0	7,3	10,3	12,6
Senegal	7,6	39,4	79,3	41,5	,0	2,2	1,9	1,9	9,1
Afrikako gainerako herrialdeak	19,2	34,5	63,8	48,0	5,3	,0	3,0	,0	15,4
Munduko gainerako herrialdeak	19,0	55,9	57,5	29,0	1,9	1,9	5,4	1,8	11,7
Guztira	13,5	18,3	59,2	18,6	4,1	3,9	3,7	4,4	7,4

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-5. Ikasketa arautuak EAEn egin dituzten edo egiten ari diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, hezkuntza-integrazioari buruzko alderdien eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2014 urtea (% horizontalak)

Jatorrizko eremua		Oinarrizkoak	Lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Profesionalak GM	Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako goimailako ikasketak	Guztira
		% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
2014	EBko mendebaldea	,0	5,6	6,2	47,5	16,1	24,6	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	7,0	32,6	29,8	6,4	4,8	19,5	100,0
	Magreb	4,1	40,9	26,4	5,5	8,4	14,7	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	,0	8,7	6,6	,0	11,7	73,0	100,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	,0	5,3	28,9	17,9	21,0	27,0	100,0
	Bolivia	,0	,0	40,2	46,6	7,8	5,5	100,0
	Paraguai	,0	17,7	27,6	29,8	,0	24,9	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	,0	,0	29,6	19,9	6,3	44,2	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	,0	2,4	34,6	20,0	14,7	28,2	100,0
	Txina	,0	,0	54,4	,0	6,8	38,9	100,0
	Senegal	17,3	43,1	15,5	11,2	6,8	6,2	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	24,8	37,3	26,7	4,1	,0	7,1	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	9,2	42,7	18,6	6,8	,0	22,6	100,0
	Guztira	4,3	19,9	25,1	15,2	9,8	25,7	100,0

Iturria: AEI 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-6. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, gaztelaniaren jakintza-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(% horizontalak)

		Gaztelania			
		Ona edo oso ona	Nahikoa	Mugatua/hobetu daitekeena	Ez daki
Jatorrizko eremua					
2010	EBko mendebaldea	93,1	3,8	3,1	,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	67,8	13,2	17,3	1,7
	Magreb	54,6	20,8	20,3	4,3
	Argentina, Txile, Uruguai	100,0	,0	,0	,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	99,6	,4	,0	,0
	Bolivia	98,4	1,6	,0	,0
	Paraguai	99,9	,1	,0	,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	89,2	6,5	4,3	,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	100,0	,0	,0	,0
	Txina	22,0	30,1	45,3	2,6
	Senegal	49,4	28,0	22,2	,4
	Afrikako gainerako herrialdeak	64,0	15,2	20,8	,0
	Munduko gainerako herrialdeak	57,7	14,9	26,4	1,0
	Guztira	81,4	8,3	9,4	,9
2014	EBko mendebaldea	89,4	3,7	6,9	,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	80,5	9,9	9,7	,0
	Magreb	70,5	16,6	11,8	1,1
	Argentina, Txile, Uruguai	100,0	,0	,0	,0
	Kolombia, Ekuador, Peru	99,5	,0	,0	,5
	Bolivia	97,9	,0	1,5	,6
	Paraguai	98,5	,8	,0	,7
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	92,7	3,9	2,9	,5
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	100,0	,0	,0	,0
	Txina	21,7	15,9	59,7	2,8
	Senegal	66,0	17,8	15,3	,8
	Afrikako gainerako herrialdeak	54,1	26,2	19,7	,0
	Munduko gainerako herrialdeak	57,9	17,9	22,0	2,2
	Guztira	83,4	7,7	8,4	,6

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-7. 16 urteko eta gehiagoko atzeritar jatorriko biztanleak, euskararen jakintza-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014 (% horizontalak)

		Euskara			
		Ona edo oso ona	Nahikoa	Mugatua/hobetu daitekeena	Ez daki
Jatorrizko eremua					
2010	EBko mendebaldea	13,7	,8	30,8	54,6
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	2,5	,3	24,4	72,7
	Magreb	3,8	1,5	19,8	74,9
	Argentina, Txile, Uruguai	3,7	1,1	47,0	48,2
	Kolombia, Ekuador, Peru	1,3	1,1	30,8	66,8
	Bolivia	1,4	5,9	30,0	62,7
	Paraguai	,0	,0	27,3	72,7
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	2,8	2,8	35,1	59,4
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	3,3	,0	29,9	66,8
	Txina	,4	,5	13,2	85,9
	Senegal	,7	,0	28,8	70,5
	Afrikako gainerako herrialdeak	,7	,4	23,3	75,6
	Munduko gainerako herrialdeak	4,5	3,3	18,5	73,7
	Guztira	3,8	1,5	28,0	66,7
2014	EBko mendebaldea	9,1	2,6	23,7	64,6
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	,4	,7	18,5	80,5
	Magreb	1,9	,8	19,2	78,1
	Argentina, Txile, Uruguai	4,2	6,7	34,2	54,9
	Kolombia, Ekuador, Peru	2,1	1,9	25,1	70,9
	Bolivia	1,2	,6	35,2	63,1
	Paraguai	2,3	,8	18,5	78,4
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	6,5	3,2	35,3	55,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	2,7	,4	25,0	72,0
	Txina	3,3	,9	7,3	88,6
	Senegal	1,9	,6	33,0	64,5
	Afrikako gainerako herrialdeak	1,6	1,1	9,9	87,4
	Munduko gainerako herrialdeak	3,1	,4	17,2	79,2
	Guztira	3,1	1,6	23,5	71,7

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-8. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ingelesaren jakintza-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2014
(% horizontalak)

		Ingelesa			
		Ona edo oso ona	Nahikoa	Mugatua/hobetu daitekeena	Ez daki
Jatorrizko eremua					
2010	EBko mendebaldea	28,8	8,8	12,6	49,8
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	12,5	8,2	26,4	53,0
	Magreb	5,0	8,0	19,4	67,7
	Argentina, Txile, Uruguai	21,6	17,3	26,1	35,1
	Kolombia, Ekuador, Peru	5,8	4,6	33,0	56,6
	Bolivia	2,9	3,5	30,2	63,4
	Paraguai	1,7	6,1	20,9	71,2
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	12,4	6,2	36,4	45,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	21,5	8,2	30,3	40,1
	Txina	8,4	7,5	21,1	62,9
	Senegal	5,9	2,2	25,2	66,7
	Afrikako gainerako herrialdeak	29,8	7,9	17,8	44,6
	Munduko gainerako herrialdeak	42,0	10,4	13,6	34,0
	Guztira	14,4	7,4	24,8	53,4
2014	EBko mendebaldea	40,0	7,4	10,6	42,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	16,7	11,6	23,9	47,9
	Magreb	8,8	7,9	20,6	62,7
	Argentina, Txile, Uruguai	25,8	14,2	32,3	27,7
	Kolombia, Ekuador, Peru	7,7	11,4	27,3	53,6
	Bolivia	4,0	6,3	22,5	67,2
	Paraguai	2,9	5,3	17,9	74,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	19,0	12,1	28,4	40,5
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	12,5	9,8	27,7	50,0
	Txina	6,2	6,6	14,5	72,7
	Senegal	13,0	9,8	24,0	53,2
	Afrikako gainerako herrialdeak	57,6	2,0	11,6	28,8
	Munduko gainerako herrialdeak	39,6	12,8	11,6	36,0
	Guztira	19,0	9,5	21,6	49,9

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



EDU-9. Beste hizkuntzaren baten jakintza-maila ona edo oso ona duten 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak. 2010 eta 2014
(Datu absolutuak)

Hizkuntza	2010	2014
	Abs.	Abs.
Alemania	3.382	3.931
Amazigh edo berebera	4.025	3.151
Arabiera	19.216	22.387
Txinera	3.916	4.042
Frantsesa	25.988	33.047
Guaraniara	4.164	3.640
Italiera	3.358	3.789
Poloniera	612	1.007
Portugesara	17.479	14.725
Errumaniera	13.905	14.030
Errusiera	5.581	5.852
Ukraniera	2.174	1.786
Urdu hizkuntza	1.845	3.586
Wolof hizkuntza	1.839	2.895

Oharra: Hizkuntza ondo edo oso dakiten pertsona kopurua 1.000tik gorakoa

Iturria: AEI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE



4. LAN ESPERIENTZIA EUSKADIN

4.1. Lana eskuratzeari buruzko alde orokorrak

52. Atzerriko jatorriko 16-66 urteko biztanleen % 86,2 daude EAEn edozein enplegu mota eskuratzeko egoeran, 2010ean baino gehiago, orduan % 78,8 baitziren, eta % 0,3k baino ez dauzkate lurraldeari edo jarduera-adarrari lotutako mugak (% 0,9 2010ean). % 8k, ordea, enplegu irregularrak baino ezin dituzte eskuratu, eta % 5,5ek ez dute uneotan lan egin nahi. Proporzio biak dira 2010ekoak baino txikiagoak (% 10,7 eta % 9,5, hurrenez hurren).

Lanpostu irregularrak baino ezin eskura ditzaketen biztanleen kopurua ia talde guztietan murriztu da baina haietako batzuetan garrantzitsua da oraindik ere. % 6,6-8,7 dira Magreb, Bolivia eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikako jatorria duten pertsonen artean. Inpaktua handiagoa da -% 15,4-19,5- Paraguai, Senegal, gainerako Afrika eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonen artean. Proporziorik handiena % 27,2koa da, gainerako Latinoamerikako biztanleen artean.

53. Guztira, atzerriko jatorriko 16-66 urteko 119.766 pertsonak izan dute inoiz lan-esperientzia bat EAEn. Adin-tarte horretako etorkinen % 76,8 dira, 2010ean (% 78,8) baino bi puntu gutxiago.

Adierazleak EAeko batez besteko mailak gainditzen ditu EBko mendebaldeko herrialdeetatik, Latinoamerikako eskualdeetatik eta Txinatik etorritako biztanleen artean. Halaber, batez besteko horretatik gertu dago Errumaniaren eta EBko ekialdeko herrialdeen (% 75,8) eta, neurri apalagoan, Senegalen (% 72,4) kasuan. Euskadin lehenagoko lan-esperientzia duten 16 urtetik gorako pertsonen proportzioa Magreben (% 63,1), munduko gainerako herrialdeen (% 61,3) eta, batez ere, gainerako Afrikaren (% 54,2) kasuetan baino ez da nabarmen txikiagoa. Hala ere, biztanle gehienak daude egoera horretan kasu guztietan.

EAEn lan-esperientzia duten biztanleen % 77,6k eskuratzen duten enplegu mota pertsonen prestakuntza mailaren arabera izan ohi dira; horri dagokionez, igoera esanguratsua gertatu da, 2010ean % 69,9 baitziren. % 21,7 maila horren azpitik daude eta % 0,6 haren gainetik.

Hezkuntza mailaren azpiko lanpostuetan lan egin behar dutenen proporziorik handienak (% 20tik gertu edo gehiago) Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetatik, Latinoamerikako eskualdeetatik (Boliviatik izan ezik) eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen artean daude.

4.2. Azken urteko lan-esperientzia

54. EAEn lehenagoko lan-esperientzia bat duten 16 urtetik gorako atzerritarrek azken urtean enplegua eskuratzeari dagokionez, alderdi hauek aipatu behar dira:

- a) Aztertutako biztanleen % 76,8k kontaktua izan dute enpleguarekin azken urteko uneren batean; proportzio hori handia da, baina 2010ekoa (% 86,7) baino 10 puntu txikiagoa ia. % 68k enplegu bakarra izan dute, % 8k 2 edo 3 eta gainerako % 0,8k 4 enplegu edo gehiago.

Area geografikoak aztertuta, lehenagoko lan-esperientzia zuten Txinako biztanleen % 5,4k baino ez



dute lortu enplegurik azken hamabi hilabeteetan. Proportzio hori % 9,2-11,7koa da Boliviatik, Paraguitik eta gainerako Latinoamerikatik etorritako biztanleen artean eta % 16,6-19,1eraino iristen da Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetako, Argentina/Txile/Uruguai eta munduko gainerako herrialdeetako esperientziadun biztanleen artean. Argentina/Txile/Uruguai biztanleen artean, egoera nabarmen okertu da, 2010ean proportzioa % 7,1ekoa baitzen.

Proportzioak % 20tik gorakoak dira, % 22,3-25,5ekoak, EBko mendebaldeko herrialdeetatik, Kolonbia/Ekuador/Perutik eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik etorritako biztanleen artean. Lan-esperientzia duten Latinoamerikako jatorriko biztanle talde bi horietan, Argentina/Txile/Uruguai artean bezala, nabarmen okertu da, 2010 eta 2014 artean, ekoizpen-sisteman sartzeko gaitasuna; izan ere, azken urtean enplegurik eskuratu ez dutenen adierazlean 9,5-12,3 puntuko igoerak gertatu dira.

Okertze hori, ordea, ezin da erkatu 2010 eta 2014 artean Afrikako eskualdeetatik etorritako biztanleen artean gertatu denarekin; izan ere, talde horietan egoera hori pairatzen duten biztanleen proportzioa 23,9-29,9 puntu igo da. 2014an, Euskadin lehenagoko lan-esperientzia zuten Senegalgo eta Magrebko biztanleen % 39,5-44,3k ezin izan dute enplegurik eskuratu azken urtean. Gainerako Afrikako erreferentziako biztanleei dagokienez, gehienak daude egoera horretan (% 52,6).

- b) Euskadin lan-esperientzia dutenen % 9,5ek gutxienez enplegu irregular bat eskuratu dute azken urtean; proportzio horrek jaitsiera handia izan du 2010eko % 18,5etik. Enplegu irregularraren jaitsiera hori orokorra da, Txinako biztanleen artean izan ezik; talde horretan, proportzioa 2010eko % 2,9tik 2014ko % 8,1era igo da.

Enplegu irregularra eskuratzen dutenen proportziorik handiena -% 32,7- gainerako Latinoamerikatik etorritako biztanleei dagokie, baina proportzioak % 10etik gorakoak dira Paraguitik eta Boliviatik etorritako biztanleen artean (% 26,2 eta % 13,8, hurrenez hurren). Gainerako taldeetan, 2014an enplegu irregularraren inpaktua % 4,3-8,1ekoa da Euskadin lan-esperientzia duten biztanleen artean.

- c) Azken urtean EAEn egiazko enplegu-esperientzia izan duten 16 urtetik gorako atzerritarrei dagokienez, % 29,3k Euskadin emandako aldi horretan laneko egoera arazotsuren bat izan dutela diote. Proportzioa 2010eko % 35,7 baino nabarmen txikiagoa da.

Ikusi diren arazo nagusiak -biztanleen % 25,5ek pairatu dituzte- lanaldiari, soldadari edo kontratuari lotuta daude, baina haietan ere jaitsiera gertatu da 2010eko % 31,1etik. Arazo nagusiak aparteko orduak eta kontratuan ezarri baino lanaldi luzeagoak egin beharri buruzkoak dira; hurrenez hurren, biztanleen % 12,7k eta % 11,8k bizi izan dituzte halako arazoak. Berriz ere arazoaren inpaktuaren jaitsiera ikusi da, argiagoa aparteko orduak egin beharri dagokionez (% 15,5etik % 12,7ra) kontratatu baino lanaldi luzeagoak egiteari dagokionez baino (% 12,5etik % 11,8ra 2010 eta 2014 artean).

Puntu honetan beste arazo garrantzitsu bat gainerako langileek baino soldata txikiagoa jasotzeari dagokio; % 8k pairatu dute egoera hori, eta kasu horretan ere proportzioa jaitsi egin da 2010eko % 9,1etik. Biztanleen % 3,8-4,9k azpimarratu dute, bestalde, soldata araututakoa edo kontratuan ezarritakoa baino txikiagoa dela, atsedenerako eskubidea betetzen ez dela edo enpresaburuaren



nahiagatik irregularki lan egin behar izan dutela. Biztanleen % 1,5-2k aipatu dituzte kontrako egoerak, hala nola soldata araututakoa baino handiagoa izatea edo lanaldia kontratu baino laburragoa. Kasu guztietan, adierazleen inpaktuak behera egin du 2010etik.

Promoziorako aukerei, erantzukizunak hartzeari eta tratu pertsonalari buruzko alderdiei lotutako arazoak azken urtean lan-esperientzia izan duten biztanleen % 8,2k aipatu dituzte; kasu horretan ere, proportzioak behera egin du 2010eko % 10,9tik. Atzerritarra izateagatik gora egiteko aukerarik ez izatea biztanleen % 4,3k aipatu dute (% 4,8 2010ean), eta % 2,8-2,9k izaera horrexegatik zereginik txarrenak uzten dizkietela edo tratu iraingarria jasaten dutela adierazi dute (2010ean baino puntu 1-1,2 gutxiago). % 3,2k atzerritarra izateagatik erantzukizunik ezin hartzea aipatu dute, 2010eko proportzioaren antzekoa -% 3,3-, eta % 1,4k baino ez dute aipatu isolatuta daudela edo lankideek arbuaitzen dituztela. Kasu horretan ere, hobekuntza esanguratsua izan da, 2010ean % 3 baitziren.

Bestalde, % 5,3k lanaren eta seme-alaben zaintzaren arteko bateraezintasuna aipatu dute, 2010ean baino hamarren bat gutxiago (% 5,4). % 2,3k laneko segurtasun maila txikiagoak aipatu dituzte; kasu honetan ere, 2010eko proportziotik oso gertu (% 2,6).

Lan-baldintzak area geografikoen arabera aztertuta, kasu honetan multzoetan hartuta, ikusten da aztertutako arazoek eragin handiagoa dutela EBko ekialdeko herrialdeetatik, Andeetako Hego Amerikatik eta Paraguitik etorritako biztanleen artean. Talde horietan, aztertutako biztanleen % 29,6-34,9k dituzte lanaldiari, soldadari edo kontratuari lotutako arazoak, eta % 11,2-14,2k dituzte promozioari, erantzukizunari eta tratuari lotutako arazoak. Halaber, talde horiek batez bestekoaren gaineko proportzioak dituzte laneko segurtasun maila txikiagoei dagokienez. Guztira, talde horietan azken urtean lan egin duten biztanleen % 35,-38,9k dauzkate arazoak; joera, ordea, beheranzkoa izan da (-3,1-5 puntu) 2010etik, orduan % 40-42 baitziren.

Bi talde horietan bilatu behar dira arazo larrien mailarik altuenak. Hala, nabarmentzekoa da Errumaniatik edo EBko ekialdeko beste herrialdeetatik etorritako biztanleen % 7k diotela euren taldeari zereginik txarrenak uzten dizkietela; Andeetako Hego Amerikatik eta Paraguitik etorritako biztanleen artean, bestalde, % 4,2k diote gauza bera. Bestalde, talde horrek islatzen du tratu iraingarriaren mailarik altuena, % 4,6. Kasu guztietan, ordea, adierazleek jaitziera argia izan dute 2010etik.

Lan arazoan inpaktua esanguratsua da gainerako Latinoamerikako eta gainerako Afrikako biztanleen artean (Senegalgoak barne). Aztertutako biztanleen % 20,7-24,9k dituzte lanaldiari, soldadari edo kontratuari lotutako arazoak, eta % 7-9,5k dituzte promozioari, erantzukizunari eta tratuari lotutako arazoak. Laneko segurtasuneko arazoak batez bestekoaren oso azpitik daude kasu honetan, % 1ek baino ez baitauzkate halakoak. Guztira, aztertutako bi taldeetako biztanleen % 26,4-28,7k aipatu dituzte laneko arazoak azken urtean. Gainerako Latinoamerikako biztanleei dagokienez, bilakaera horrek 3 puntuko hobekuntza baino ez dakar 2010eko % 31,7tik 2014ko % 28,7ra. Gainerako Afrikako biztanleei dagokienez, ordea, hobekuntza 14,6 puntukoa da, 2010eko % 41etik 2014ko % 26,4ra.



Bestalde, Magrebko eta Txinako biztanleak azken urtean lan-esperientzia izan duten atzerriko biztanleen batez besteko orokorraren oso azpiko mailetan daude. Kasu horretan, erreferentziako biztanleen % 18,4-19,6k dituzte lanaldiari, soldadari edo kontratuari lotutako arazoak, eta % 3,6-6,1ek dituzte promozioari, erantzukizunari eta tratuari lotutako arazoak. Laneko segurtasuneko arazoaren eragin mailak batez bestekotik gertu edo behera daude (% 1,1-2,6). Guztira, azken urtean Euskadin lan-esperientzia izan duten biztanleen % 20,2-22,1ek dauzkate arazo orokorrak. Baina 2010 eta 2014 artean Magrebko biztanlerian arazo horien eraginaren jaitsiera oso deigarria den bitartean (% 34,2tik % 22,1era), % 18,3tik % 20,2ra igo da Txinako jatorria duten biztanleen artean.

Lan-arazoaren eragin txikiena adierazten duten biztanleak -% 14,9-15,4- EBko mendebaldeko herrialdeetatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoak dira. Bi talde horietan arazo horien eragina 12,5-13,3 puntu jaitsi da 2010 eta 2014 artean.

Beraz, datuek agerian utzi dute joera orokor positiboa, eta ñabardura bakarra Txinatik etorritako langileen egoeraren okertzea da, paradoxikoki, 2010ean adierazlerik onenak islatzen zizutenena.

4.3. Gogobetetzea lanean

55. Egoera arazotsu horiek antzeman arren, oro har lan-baldintzen balorazio positiboa nagusitzen da egun EAEn lan egiten duten atzerriko biztanleen artean. Gogobetetzeko eta atsekabeko posizioak erkatuta³, haien artean polo positiboranzko alderik handiena -80 puntutik gertukoa edo handiagoa- buruzagi edo nagusiekiko erlazioari, lanaren baldintza materialei eta bizimoduarekin (kultura, erlijioa, etab.) bat etortzeari dagokie; eremu horietan egoerak berdin iraun edo hobetu egin da 2010ekoaren aldean. Bestalde, hobekuntza deigarria izan du lan-erritmoaren balorazioa; izan ere, alde positiboranzko aldea 75,7 puntukoa da, hots, 6,5 puntuko hobekuntza 2010eko egoeraren aldean.

Polo positiboaren aldeko aldeak 61,3-66,9 puntukoak dira arrisku mailari eta lana egiteari lotutako estresari edo presio psikologikoari dagokienez. Bi eragile horietan, 2010-2014 aldiko joera positiboa izan da eta diferentzial positiboan 3-5,5 puntuko igoera gertatu da. Bestalde, lanaren gogortasun mailak alde positiboranzko 59,2 puntuko aldea erakusten du, 2,7 puntuko hobekuntza 2010eko egoeraren aldean. Lan-ordutegiari dagokionez balorazio positiboa nagusitzen bada ere, kasu honetan diferentzial positiboa 63 puntutik 56,2 puntura jaitsi da 2010 eta 2014 artean.

2010ean bezala, lan-baldintzen bi alderdi jakinek baino ez dituzte alde urriak gogobetetzeko eta atsekabeko posizioen artean: ordainsariak eta promozionatzeko posibilitateak. Lehenengo kasuan, 32,2 puntuko aldea dago gogobetetako pertsonen (% 64,8) eta atsekabetutako pertsonen (% 32,5) artean. Alde positibo hori, ordea, igo egin da 2010eko 27,7puntuetatik, urte hartan gogobeteta zeudenak % 60,9 baitziren, eta atsekabetuta zeudenak % 33,2.

³ Gogobetetzeko eta atsekabeko posizioak erkatzeari begira, atal honetan, aztertutako item bakoitzerako, gogobeteta eta atsekabetuta dauden pertsonen proportzioaren arteko aldea -edo diferentziala- jasotzen da (kenketa eginez, gogobeteta daudenen ehunekoa-atsekabetuta dauden ehunekoa). Adierazlearen balio positiboek pertsona gehienak gogobeteta daudela islatzen dute (balorazioaren polo positiboa); maximoa +100 litzateke biztanle guztiak gogobeteta baleude. Balio negatiboek, aldiz, pertsona atsekabetuen nagusitasuna islatzen dute (balorazioaren polo negatiboa); minimoa -100 litzateke aztertutako biztanle guztiak atsekabetuta baleude. 0 *balioak gogobetetako eta atsekabetutako*



Bilakaera, ordea, negatiboa da enpresan promozionatzeko aukerei dagokienez. Kasu horretan, alde positiboa 17,1 puntukoa baino ez da 2014an, 2010eko 22,6 puntuen azpitik. Gogobetetako pertsonen proportzioa % 56,1etik % 54,8ra jaitsi da 2010 eta 2014 artean, eta atsekabea % 33,5etik % 37,7ra igo da.

